

ASTEARI ZEHARKA BEGIRA

Burujabetza prozesuaren
agenda soziala **PELLO OTXANDIANO > 11**

PAUL URKIJO: «Munduan kolore
pila bat dagoela ikusten du orain
jendeak, tartean euskara» **> 22**

GAUR8

2018ko otsailaren 24a | XII. urtea • 558. zk.
0,50 euro

mila leiho zabalik
www.gaur8.info



MAPAMUNDIKO 21 PUNTUTATIK MIRIBILLARA BILDUAK

BILBOKO MIRIBILLA AUZOKO ESKOLAN «ANIZTASUNA» HITZA ASKOTAN ENTZUTEN DA. BERTAKO NESKATO BATEK AITORTU DUENEZ, EZ ZEKIEN OSO ONDO ZER ESAN NAHI ZUEN. «ESKOLAN 21 HERRIALDE EZBERDINETAKO JENDEA GEUNDELA MAPA BATEAN IKUSTEAN ULERTU NUEN». **> 12** Aritz LOIOLA | ARGAZKI PRESS

Askapenako brigadak, Euskal Herria helburu duten esperientzia politikoak 04

Oxfamek neurri zorrotzagoak hartu ditu, autokritika eginda 06

Paolo Guerrero, momia inkei esker Munduko Futbol Txapelketara 08

Miribilla: aniztasuna, euskara eta eskola publikoa osagai dituen eredua 12

Egindako lanari begira egon baino, lanean segitu nahiago du Atauniker elkarteak 16

E.lkarrizketa: Paul Urkijo 22

In fraganti: Joana Flaviano 28

Juantxo Egañaren behatxulotik 31



SINADURAK:

03 **Iratxe Urizar:**

«In-komunikazioa»

10 **Ander Gortazar:** Hil ziren

11 **Pello Otxandiano:** Burujabetza prozesuaren agenda soziala

20 **Gorka Zozaia:** Gizateria 2050 (II): Gogo burujabetza

21 **Iker Barandiaran:** Ardia eta, gainera, erregea

25 **Unai Iturriaga**

27 **Maidier Iantzi:** Bakarne

27 **Xabier Mikel Errekondo:** Ekai, maite zaitugu

30 **Garazi Goia:** Grisa, beltza eta arteak



{ datorrena } Iratxe Urizar

«In-komunikazioa»

Euskal gatazkaren inguruko film on baten faltan, maiz pentsatzen dugu Hollywooden kontaktu on bat izatea dela behar duguna. Izan ere, ukaezina da *mass media*-k eskaintzen zuen irakurketa unionistatik urruntzen ziren zuzendari profesionalen pelikulek Irlandako gatazkaren internazionalizazioan eta ezagutzen lagundu zutela. Publiko orokorrari ordura arte azaldu gabeko hainbat elementu helarazi zitzaizkion bide horretatik. Euskal gatazkaren kasuan, baina, salbuespen gutxi batzuk kenduta, ez da film onik ez dugula (ikuspegi orotatik begiratuta, ez eduki mailan soilik), askotan esperpento hutsez ari garela baizik.

Hau guztia dator Ryan Coogler zuzendariak Ameriketako Estatu Batuetako zinema aretoetan estreinatu berri duen filmagatik, “Black Panther” deritzon akzio pelikulagatik, hain zuzen ere. Arrakasta itzela izaten ari da, baina ez hori bakarrik: egunero-kotasun osoa izatera pasatu da erakunde iraultzaile horretako kide izatea leporatuta gaur egun oraindik ere kartzelan dauden preso bizi baldintzen gaineko eztabaida. Ez gara ari historian existitu zen erakunde bati buruz: preso horiek gaur egun ere kartzelan daude kondena luzeak betetzen. Mumia

Abu Jamal da agian presorik ezagunena, baina ez bakarra. Superheroiak ateratzen diren fikziozko film bat izanik ere, interesgarria da ikustea nola bide horretatik gai bat gizarte guztira heltzen den.

Bizirik dirauten gatazka politikoei buruzko pelikula egitea kontraesanek eta arriskuz beteriko kontua da, arrisku nabari-nabariak gainera. Ezkutuko errealitate bat pendulu kolpe latz baten ondorioz bat-batean kontsumo produktu izatera pasa daiteke, edukirik gabeko *merchandising* eta guzti.

Pantaila handira eramateko moduko gai asko okurritzen zaizkit. Fikzio film bikaina izan zitekeen, esaterako, “Egunkaria”-ren itxiera (adibide bakar bat jartzearen), egunotan gertaera latz horretatik hamabost urte betetzen diren honetan. Denbora marjina egokia da, zuzendaritzako kideak torturatu egin zituzten guardia zibilek (bai, torturatu) eta epaileek ez zuten ezertxo ere egin; osagai guztiak gertatutakoa eraso zuzen bezala ulertzeko. Urtemugak, gainera, eskandalu kate batekin kointziditu du: hainbat kantari kondenatu dituzte euren letretan esaten dutenagatik, Arco ferian arte-erakusketa bat zentsuratua dute, liburu bat bahitu dute... Gertaeron larritasunari fitsik kendu barik, askok errepresio molde berriak bailiran aurkezteak harritu egiten nau.

“Egunkaria”-ri buruzko pelikulari bukaera ezin hobe ere emango nioke: Fermin Muguruzak botatako salaketa bere “In-komunikazioa” abestiak kan-

Pantaila handira eramateko moduko gai asko okurritzen zaizkit. Adibide bakar bat jartzearen, fikzio film bikaina izan zitekeen, esaterako, orain dela hamabost urte gertatutako «Egunkaria»-ren itxiera

ta onenaren saria jaso zuenean Madrilen. Fermin Muguruzak esker onak banatzeko unea “Egunkaria”-ren itxiera salatzeke erabili zuenean, publikoan zeuden gehienek txistuka eta oihuka erantzun zioten (ez gara urrutiegi joango publiko hartako aurpegiak enfokatuz, izan ere, seguruenik egunotan euren profil sozialetan “adierazpen askatasunaren aurkako eraso izugarriak” salatzen ibiliko dira-eta): Espainiako kultura eta artisten munduko aldarrikatzaile eta progresistak denak ala denak. •

JOAN-ETORRIKO ELKARTASUNA

Askapenako brigadak, Euskal Herria helburu duten esperientzia politikoak

Hainbeste hedatu diren kooperazio proiektuekin zerikusi gutxi dute Askapenak antolatutako brigadek. Zentzu politiko nabarmen eta ezinbestekoa dute brigada horiek. Hala azpimarratzen du Askapenak berak. Ez da ere «turismo politikoa». Nazioarteko elkartasuneko euskal erakundeak argi dio: «Ez goaz turismo politikoa egitera, ezta karitatez lagundu edo irakaspen iraultzaileak ematera ere».

Horregatik, beste herriak «laguntzeko» asmoa dutenek ez dute Askapenako brigadetan aurkituko beren bidaiak. «Urte luzez pilatutako esperientziak ederki erakutsi digu praktika horiek ez dutela zentzurik; jarrera paternalistak bultzatu eta besteen borrokak erakusleihen huts izatea dakarte, eta helmugako herrientzat ez dute inolako onurarik», azaldu dute brigadetak arduradunek.

«Elkartasunak politikoa behar du izan eta bi norabideetako, joan-etorrikoa alegia», nabarmentzen du Askapenak. Izan ere, munduko hainbat tokitatik pasatu dira milaka pertsona 30 urte baino gehiagoko bidean, «Euskal Herria dugula helburu ahaztu gabe». Hala, Euskal Herriko borroken berri ere zabaldu dute Askapenako brigadistek: «Gure hastapenetatik, brigadak tresnarik garrantzitsuenetarikoa izan dira gainontzeko herri langileen borrokak ezagutu eta gure borrokak irakaspen horiez elikatze. Horrela egin dute ehunka euskal brigadistek, gure herriko esperientziak gainontzeko herrietara zabalduz. Horregatik diogu diogu 'interna-

INTERNAZIONALISMOA / Pablo Ruiz de Aretxabaleta

Paternalismotik, turismo politikotik eta garapenerako kooperaziotik urrun dauden brigadak aurkeztu ditu Askapenak. Urtero bezala, Euskal Herriko askapen borroka elikatzen dutela nabarmendu du erakunde internazionalistak. Europa, Latinoamerika eta Ekialde Hurbila dira aurtengo helmugak.

zionalismotik Euskal Herria eraikitzen' ari garela».

Aipatutakoaren erakusle, brigaden lanaren zati handi bat bidaietatik itzultzean hasten da, Euskal Herrian bertan. «Herrien borroken elkar eza-gutza bultzatzeko brigadak dira gureak, bueltatzerakoan, Euskal Herrian internazionalismoa eta gure askapen borrokak elika ditzaten», azaltzen du Askapenak. Izan ere, «Euskal Herria dugu helburu. Internazionalismoak gure herriaren askapen nazional eta sozialean daukan garrantzia jarri nahi dugu mahai gainean».

HIRU EREMU GEOGRAFIKO

Askapenak antolatutako lehen brigadek Latinoamerika zuten helmuga nagusi eta bertako askapen prozesuekin ereindako lotura estuari gaur egun arte eutsi dio erakunde internazionalistak. Baina Askapenako brigadak berehala iritsi ziren munduko beste tokietara ere, eta, egun, erakundeak garrantzi berezia ematen die Europar batasunak kentzen baitigu». Horrela hurbildu dira azken urteotan espainiar Estatuan eta Estatu frantsesean sortutako borroketara, edo Italian eta Grezian izandakoetara.

Gaur egun, Askapenaren esanetan, langileen etorkizuna «hiru eremu geografikotan dago jokoan, bertan jokatzeko baita munduko hegemonia: Latinoamerika, Ekialde Hurbila eta Europa». Ereduotan «herri langileen etorkizuna dago jokoan», eta, guztietan «borroka zinez interesgarriak» daudela ikusirik, hiru eremutara helduko dira aurtengo euskal brigadistak.

Latinoamerikaren kasuan, hainbat herritan boterera iri-



tsitako mugimendu ezkertiarren lana suntsitzen saiatzeko ahalegin indartsua dago eta horrek brigaden jarduera bera ere aldatuko du. «Inperialismoaren eraso bortitza bizi du egun Latinoamerikak, eta herri langileen erresistentzia borrokak zein prozesu iraultzaileen nolakotasunak ezagutuko ditugu», azaldu du Askapenak. «Herri boterearen eta burujabetzaren eraikuntza, neurri neoliberalen aurkako erresistentzia, jatorrizko herrien borroka zein memoria historikoa landuko ditugu besteak beste», gaineratu du.


Ekialde Hurbileko brigadetan, bestalde, honako hauek izango dira ardatz nagusiak: inperialismoaren aurkako herri erresistentziak, askapen borroka eta okupazio militarra. Okupazio militarrek dakarren ondorio nagusia ere oso gertutik ezagutuko dute: milaka eta milaka errefuxiatu izatea.

Azkenik, Europan, «periferiako herriek bizi duten egoera landuko dugu, ezkerreko mugimenduen errealitateak eta borroka zein nazio zapalduen askapen prozesuak ere ezagutz», azpimarratu du erakunde internazionalistak.

KUBA, PALESTINA, ITALIA...

Iazko brigadetan ere antzeko ildoak jorratu zituen Askapenak. Kuban, adibidez, bertako erronka ekonomikoak edo Casa de las Americas kultur elkartearen lana aztertu zuten. Mexikoko brigadak gizarte zibileko eta EZLNko kideek antolaturiko jaialdi batean parte hartu zuen, eta Chiapaseko emakumeen borroka oso gertutik jarraitu zuten.

Uruguain brigadistak benetan hunkitu ziren El Filtroko martxaren antolaketan parte hartuz. Elkartasun handia jaso



Iazko Britainiako
brigadako partaideak.
ASKAPENA

zuten, 23 urte atzera euskal errefuxiatu politikoei jaso zuten bezala. “Resumen Latinoamericano” aldizkariako kideak izan zituzten gidari brigadistek Argentinan, kontrainformazioari eta inperialismoaren diskurtsoari aurre egiteko lan garrantzitsuan.

Venezuelan, brigadistek 23 de Enero Caracaseko auzo herritarra bisitatu zuten. Hala, prozesu iraultzailearen aldeko biztanleen eguneroko bizitza bertatik bertara ezagutu zuten.

Bolivian, prozesu eraldatzaileraren nondik norakoak eta sozialismo instituzionalaren berri jaso zuten brigadistek. Eta, Brasilen, lurraren aldeko borrokaaren historiaren ondarean sakondu zuten.

Kontinentez aldatuz, Palestinan lehen brigada feminista osatu zuen iaz Askapenak. Begirada horrekin ezagutu zuten Nabluseko herri mugimendua edota Hebronon palestinarrek bizi duten *apartheid* egoera. Libanon, errefuxiatu kanpa-

mentuetako egoeraren berri izan zuten, bereziki, emakume errefuxiatuena. Libanok Israelen mehatxupean bizi duen egoera ere ezagutu zuten.

Europan, azkenik, Italiako herri mugimendua ezagutu zuten brigadistek, abiadura handiko trenaren aurkako borrokaaren, etxe huts publikoen okupazioaren edo ekintzaileek bizi duten errepresioa gogoraren berri izanez. Britainian, mugimen independentistaz gain, ZADetik Nanteseke aireportuaren proiektuaren aurkako mugimendua ezagutu zuten, hain zuzen, hamarkada luzetako borrokaaren ostean behin betiko garaipena lortu baino hilabete eskas lehenago.

Orain, aurtengo brigadak aurkezteko, apirilera arte ari dira Askapenako kideak informazioa zabaltzen Euskal Herriaren barna. Izena emateko, brigadak@askapena.eus helbidea jarri dute.

Askapenak garrantzi berezia ematen die egun Europan bertan garatzen diren mugimenduei, «gure subiranotasuna Europar Batasunak kentzen baitigu»

«Herrien borroken elkar ezagutza bultzatzeko brigadak dira gureak, bueltatzerakoan, Euskal Herrian internazionalismoa eta gure askapen borroka elika ditzaten»

OXFAM, AUTOKRITIKA

Erakundeak neurri zorrotzagoak hartu ditu sexu abusuak salatu eta saihesteko

 **KOOPERAZIOA** / Ainara Lertxundi

Oxfam gobernuz kanpoko erakundeak jasotako sexu abusu salaketek mahai gainean jarri dituzte gardentasun beharra eta horrelako jarrerak berriro errepika ez daitezen neurri zorrotzagoak hartzearen ezinbestekotasuna. Nahiz eta Haitin zer gertatzen ari zen jakin, orduko zuzendaritzak ez zuen inolako salaketa publikorik egin.

Oxfam gobernuz kanpoko erakundeak 10.000 langile ditu munduko ehun bat herrialdetan. 2011. urtean, Roland Van Hauwermeiren Haitiko Oxfameko zuzendariaren eta erakundeko zenbait langileren kontrako sexu abusu salaketak tartekatu ziren, Karibeko herrialdea suntsitu eta 200.000 hildako eragin zuen lurrikara izan eta urtebetera. Mikelange Gabou haitiarrrak auzia argitara eman duen “The Times” egunkariari esan zioenez, Van Hauwermeirenekin sexu harremanak izan zituen berak 16 urte zituenean eta hark 61. Dirua emateaz gain, zuen ume txikiarentzat pixoihalak erosi zizkion. «Lagundu egin ninduen. Bere etxean beti emakumeak zeuden, haitiarrak guztiak. Emakumeak haren dibertimendua ziren», adierazi zuen.

Belgikako hedabideetan zabaldutako gutunean, Van Hauwermeirenek ukatu egin du Haitin orgiak antolatu izana. Emakume «heldu» batekin harremanak izatea eta etxean prostitutekin egon izana onartu du. Ofmanetik kaleratua izan beharrean, dimisioa aurkezteko aukera eman zioten «baldin eta ikerketarekin kola-

boratzen bazuen». Bada, auziari buruz egindako ikerketaren txostena argitara eman du aste honetan bertan Oxfamek, gardentasuna bermatzeko. «Erabat atsekabetuta gaude jakitera eman diren informazioekin. Jarrera horiek onartezi-nak dira eta arbuia egiten ditugu. Babestu behar zituztenen kontra egin zuten pribilegiatuak ziren gizon batzuek. Oxfam sustengatzen dutenen, baita erakundearen milaka langileen konfiantzaz abusatu zuten. Injustizia eta pobrezia desagerrarazteko mundu osoan lan egiten dugu. Gertatutakoa golpe gogorra da guretzat, eta eztabaidan jarri du gure barne arautegia. Izan ere, emakumeen eskubideen defentsa, batez ere, egoera ahulean dauden emakumeena, gure jardunaren zutabe da», nabarmendu du Oxfamek.

«Salaketa horiek duela urte batzuk gertatu ziren eta pertsona gutxi batzuen kontrakoak izan ziren. Horrek ez du esanahi onartzen ditugunik edo merezi duten garrantzia ematen ez diegunik. Gure aldetik ez dago inolako tolerantziarik. Ez dugu sekula ere balorazio positiborik egin auzi hau dela eta kanporatuak izan ziren pertsonen buruz. Atseka-bea eragiten digu pertsona horiek laguntza humanitarioa

Oxfam gobernuz kanpoko erakundeak Londresen duen dendetako bat. Behean, Mark Golding Oxfameko Britainia Handiko zuzendaria.
Justin TALLIS
Daniel LEAL-OLIVAS | AFP



eskaintzen duten beste erakunde batzuetan lanean egon direla jakiteak», nabarmendu du Oxfam International erakundeko zuzendari Winnie Byanyimak.

«Ez da egia auzia ezkutatu nahi izan genuenik. Hala ere, argi dago akatsak egin genituela. Momentu horretan, orain ditugun politika publikoak eduki izan bagenu, egoeraren kudeaketa oso bestela-

koa izango zen», gaineratu du. Byanyimak gogoratu du 2011. urtean salaketen berri izan zituenean, barne ikerketa bat ipini zutela martxan. «Lau lankide kanporatu genituen jarrera desegokiengatik –hala nola, lankideak xaxatzeagatik, sexu-jazarpenagatik, kideak beldurrazteagatik eta sexu jarrera txarragatik– eta beste hiruk, tartean Oxfameko zuzendaria Haitin, dimisioa aurkeztu zu-



ten erakundearen bulegoetan prostitutekin egoteagatik. Tartearen adingabeko neskatoak ote zeuden ez zen frogatutzat eman. Ikerketaren ostean, auziaren gaineko ebaluazio eta hausnarketa sakona egin genuen. Babes Talde Berezi bat osatu genuen, baita salaketak aurkezteko isilpeko lerro bat zabaldu genuen. Gure langileak babesteko eta jazarpena, esplotazioa eta sexu abusua saihesteko adostu genituen neurrietariko batzuk dira», esan du orain auziak izan duen oihartzunaren aurrean.

Autokritika ere egiten du Byanyimak. «Geroztik aldaketa ugari egin ditugun arren, argi dago ez dugula nahikorik egin gure kultura aldatzeko eta mundu zabalean gurekin eskuz esku lan egiten dutenak babesteko politika sendoagoak eraikitzeko. Horretan ari gara lanean buru belarri. 2017ko urrian, Oxfameko Batzorde Exekutiboak erakunde-

aren Jarrera Kodea gaurkotu zuen. Haitin gertaturiko jarrerak modu esplizituan debekatzeko. Lan gida berezi bat sortu dugu sexu esplotazioari, abusuari eta jazarpenari aurre hartzeko. Dena den, oraindik ere gauza asko ditugu egiteko eta lehenbailehen ekin behar diogu jardun horri. Gure lehentasuna emakumeen eta neskatoen alde lan egitea da, eta gure erakundearen baitan egon diren sexu jarrera txarrak errotik desagerraraztea. Pertsona gutxi batzuen ekin-tzak ez dira Oxfamek munduko hainbat herrialdetan egiten duen lanaren isla; ez luke horrela izan behar», nabarmendu du Oxfam Internationaleko zuzendariak.

Ildo berean, Britainia Handiko Oxfameko zuzendari Mark Goldringek, sortutako iskanbila gehiegizkotzat jo arren, gardentasun falta onartu du auzia kudeatzeko orduan. «Eraso eta kritika gogorrek eta krude-

lak jaso ditugu. Gehiegizkoak iruditzen zaizkit erruduntasun mailarekin alderatzen baiditugu. Akaso umetxoak beraien sehasketan hil ditugu?», esan du «The Guardian» egunkarian eginiko elkarrizketan.

Auziaren atzean nolabaiteko manipulazio politikoa egon daitekeen susmoa ere adierazi du Goldringek. Aski ezagunak dira Oxfamek munduan dauden paradisu fiskalei buruz egin dituen ikerketak. 2016ko abenduan aurkeztu zuen txostenean, hamabost zerga-para-

«Pobrezia ez da eskola batekin, putzu batekin edo erizain batekin desagertzen. Pobrezia zerk eragiten duen jakin nahi dugu. Zergatiei aurre egiten diegu eta hori askori ez zaie gustatzen»

«Ez da egia auzia ezkutatu nahi izan genuenik. Hala ere, argi dago akatsak egin genituela. Orain ditugun politikak eduki izanez gero, egoeraren kudeaketa bestelakoa izango zen»

disu antzeman zituen. Zerga-ihesaren ondorioz, garapen bidean dauden herrialdeek urtero 100.000 miloi dolar gutxiago jasotzen dituztela salatu zuen Oxfamek. Diru horrekin, eskolatu gabeko 124 milioi haurren hezkuntza eta osasun eskubideak bermatu daitezkeela nabarmendu zuen, baita gutxienez urtean 6 milioi haurren heriotza ekidin ahalko litzatekeela ere. Zerga-paradisuak arazoaren zati txiki bat besterik ez direla ere nabarmendu zuen gobernu kanpoko erakundeak, izan ere, herrialde gehienak multinazionaleri ezartzen dizkieten zergak murrizten ari dira inbertsio gehiago izateko.

2017ko urtarrilean, Davosko Munduko Foro Ekonomikoaren testuinguruan, pobreen eta aberatsen arteko haustura gero eta nabarmenagoa dela salatu zuen Oxfamek. Munduko aberastasuna zortzi gizonen esku dagoela eta 3.600 milioi pertsonek adina diru dutela salatu zuen.

«Pobrezia ez da eskola batekin, putzu batekin edo erizain batekin desagertzen. Gu harago goaz, herritarrek pobrezia egoeran jarraitzea zer faktorek eragiten duten galdetzen diogu gure buruari eta erantzun horiek bilatzen ditugu. Zergatiei aurre egiten diegu eta lan hori askori ez zaie gustatzen», helarazi du Goldringek. «Esaten dugun guztia manipulatuta egiten da», gaineratu du. Hala ere, Goldringek akats gisa onartu du publikoki azaldu ez izana pertsona horiek zergatik ez ziren jada Oxfameko langileak. «Gure helburua bizitzak salbatzea da, eta, ikuspuntu horretatik, uler dezaket zergatik pentsatu zen auzia ezkutatzeko biderik egokiena izan zitekeela», adierazi du.

DONTZEILAREN GOLA

Inken momiei esker izango da Munduko Txapelketan Paolo Guerrero Peruko izarra

FUTBOLA / Mikel Zubimendi Berastegi

Istorio honen protagonista Dontzeila goitizena eman zioten Lulllaillacoko Haurra eta Paolo Guerrero dira. Lehen duela bost mende pasatxo bizi izandako 15 urteko neskatxa zen; bigarrena, Peruko futbol selekzioko egungo kapitain eta goleatzailea. Eta biak lotzen dituen hari harrigarria benzoylegonina da, koka landareen hostoetako alkalino aktiboa, kokaren metabolismoaren deribatu kimikoa.

Guerrero Brasilgo Flamengo taldean jokatzeko duen futbol izarra da. Aurrelari indartsua, segur aski Perun gehien maitatzen dutena, berari esker iritsi baita herrialdeko selekzioa aurtengo Errusian jokatu den Munduko Futbol Txapelketara, 1982tik lortu gabeko balentria lortuta.

Iazko abenduan, baina, FIFAk Guerrerok dopin arauak hautsi zituela aurreratu zuen, kokainaren, Andeetako koka landarearen, metabolismoaren deribatu kimikoa den benzoylegoninarekin positibo emategatik. Urte bateko zigorra jaso zuen, aurtengo Munduko Futbol Txapelketa galduz. Guerrero txapelketatik kanpo uztea tragedia bat izan zen Perun, lurrikara bat.

Peruko futbol izarrak, bere defentsan, koka hostoak te kika batean baino ez zituela hartu adierazi zuen, bere herrialdean aski ohikoa dena. Guerreroren erreklamazio horrek, baina, bere abokatuentzat zeru bat zabaldu zuen, defentsa estrategia antolatze oso erabilgarria eta interesgarria izan zitekeen argia. Izan ere, abokatuek FIFAren epaitegiaren aurrean goi mailakoak eta oso zaharrak ziren lekuko-

Errusiako Munduko Futbol Txapelketa ekainean hasiko da. Bertan izango da Peruko selekzioko aurrelari eta izar Paolo Guerrero, FIFAren dopin azterketa batean koka landarearen hostoen benzoylegonina metabolikoarekin positibo eman arren. Gakoa Lulllaillacoko Haurrek, duela bost mende inke sakrifikatutako hiru haurren momiek, Guerreroren abokatuei emandako argudioak izan dira.



Dontzeila, Lulllaillacoko Haurretan zaharrena den momiaren irudia. Behean, uzurtuta, goxogoxo lo balego lez sumendian aurkitu zuten jarreraren ikus daiteke, ikerlariak azterketak egiten alboan dituela.

GAURB

ak aurkezteko aukera izan zuten, ziurrenik zuzenbidearen historian inoiz izandako lekuko bitxienak: Lulllaillacoko Haurrak. Argentinako 6.739 metroko sumendi izoztuan topatu zituzten hiru momiak, inke bost mende lehenago bertan utzitakoak erritual baten baitan.

«CAPAC COCHA» ERRITUALA

Guerreroren defentsa estrategia irudimen handikoa izan zen, aurrekaririk gabea. Lulllaillacoko Haurrak *capac cocha* izeneko erritual bateko objektu izan ziren. Urte bat baino gehiagoz une horretarako prestatu ondoren, Andeetako tontorretara eramaten zituzten haurrok enperadoreen izendapenak, heriotzak edo natura hondamendiak gertatzean. Europako mendizaleek lau mende geroago “lehen aldiz” igotako gailurrotara igotzen zituztenean, bertan hil edo izozten uzten zituzten, kosmosaren betiereko mezulari gisa.

Lulllaillacoko Haurrek 6 eta 15 urte artean zituzten hil zirenean, 1500. urtearen inguruan. Argentinako eta AEBetako arkeologo talde batek aurkitu zituen 1999an, ia-ia Lulllaillacoko sumendiaren tontorrean. Munduan hobekien kontserbatutako kolonauurreko gorpuzkiak dira. Momifikatutako hiru haurretan zaharrena, Dontzeila bezala ezaguna, gorputz jarrera deigarrian aurkitu zuten; badirudi uzurtuta, goxo-goxo lo geratu zela.

Paolo Guerreroren abokatuei gehien interesatzen zitzaiena Lulllaillacoko Haurrek jan eta edan zutena zen. Beren gorputzen tomografia konputerizatua erabiliz eta beren ileetan aurkitutako karbono eta

nitrogeno isotopoen analisiak eginda, beren azken momentuak berreraikitzea lortu zuten arkeologoek. Eta bide batez, konkistatzaile espainiarren kronika eta bibliografietan *capac coch* errituaren inguruan eraikitako errelatoa, hots, sakrifizio basati eta beldurgarria zela, zalantzan jarri zuten.

Ingalaterrako Bradfordeko Unibertsitateko irakasle Andrew Wilsonek demostratu zuenez, Dontzeilak azken urtean bere dieta aldatu zuen, patatetan oinarritutako batetik animalia eta landare proteinetan, artoarena bereziki, aberatsa zen batera pasatuz. Hil baino aste gutxi batzuk lehenago *chicha* –artotik ateratako edari alkoholikoa, inken erritualetan oso erabilia– asko edan zuela frogatu zuen. Eta Wilsonek bere hipotesia ere jarri zuen mahai gainean: mendiko izaki izoztu eta arnasgabe bihurtu baino lehen, ziurrenik, Dontzeila eta bere bi lagunak sedatzeko *chicha* erabili zuten.

BENZOYLECGONINA «POSITIBOA»

Guerreroren defentsarako, baina, denetan inportanteena, Dontzeila momiak berak ere benzoylecgonina substantzian “positibo” eman zuela izan zen. Bistan da 15 urteko nesaketa momifikatuak ez zuela kokaina esnifatu, kokaina, alkaloida bezala, XIX. mendean isolatu baitzen. Azterketen emaitzak erakutsi zuenez, *capac cocha* erritualetarako prestakuntza, Andeatako landare sakratua den kokaren erabileran oinarrituta zegoen. Koka hostoei atak zabaltzen zizkion erritoak, besteak beste, bizigarri moduan, nekearen, gosearen, egarriaren, minaren eta altuerako gaitzaren sintomak arintzeko ahalmenagatik.



Hiru momiari esker Errusiako Munduko Futbol Txapelketan izango den Peruko selekzioa aurrelari eta izar Paolo Guerrero. GAUR8

FIFArek epaitegiaren aurrean Paolo Guerrieroren abokatuek Lullailacoko Haurrei egindako azterketak aurkeztu zituztenean, benzoylecgonina metabolikoa gorputz batean mendeetan mantentzeko frogatu zuten. Edo beste hitz batzuetan esanda: Guerrero zigortzeko FIFAk egindako dopin kontrolek bakar-bakarrik frogatzen zuten bere bizitzako uneren batean, segur aski oso aspaldian, Dontzeilak bost mende lehenago egin bezala, koka hostoak hartu zituela.

«Capac cocha» erritualaren prestakuntzak koka hostoak zituen oinarri, besteak beste, bizigarri moduan, neke, gose, egarri, min edo altuerako gaitzaren sintomak arintzeko ahalmenagatik

Guerrero zigortzeko FIFAk egindako dopin kontrolek soilik gauza bat frogatzen dute: bere bizitzako une batean, Dontzeilak bost mende lehenago egin bezala, koka hostoak hartu izana

Alegia, Guerrierok, murtxikatura edo te infusioan, egun kriminalizatuta dagoen antzinako landare sakratuaren hosto hartu zuela. Nahiz eta kriminalizatutako praktika izan, Hego Amerikan milioika lagunen ohiko praktika dena.

SAKRIFIZIOAREN IRONIA

Azkenean, Dontzeilaren ilean aurkitutako benzoylecgoninari esker, FIFAk Peruko futbol selekzioaren izarrari zigorra sei hilabetera jaitsi eta Munduko Txapelketan izatea bai-

mendu dio. Dontzeila momia inkari esker, eta Guerrieroren abokatuek epailetan momiak erabiltzeak kasuari eman dion sonari esker, Peru eta Paolo Guerrierorentzat amaiera zoriontsua izan du istorioak. Futbol izar horrek baditu arrazoiak, bai, mundiala eta gero, edo lehenago, Argentinako Saltako museoan dauden hiru momiei bisita egiteko eta bere taldekideekin batera, berak ordainduta noski, Dontzeilaren osasunaren alde *chicha* trago eder batzuk botatzeko.

Istorioak badu ironia. Inkek egin bezala, gizakien sakrifizioak gertakizun bereziak ospatzeko, oparotasuna eta osasuna ziurtatzeko, bekatuak barkatzeko... ohikoak izan dira. Eta momiak, gurtzako objektu, erritualetako protagonista. Beste aldare eta mota batekoak badira ere, erlijio berri den heinean, ez al ditu futbolak ere giza sakrifizioak eskatzen?



Ander Gortazar Balerdi
Arkitektoa

Hil ziren


Laster esango da zuengatik, esan ohi dena orain gugatik: hil ziren». Donostiako Polloe hilerriko sarrerako leloa da, espero ez nuen umore beltzez zizelkatua. Azalpena zein den ideiarik ez dut, baina ohikoak dirudite halako mezu zirtolariek Euskal Herriko hilerrietan: beude froga gisa Gaintzako “gaur ni, bihar zu” edo Eskoriatzako Apotzagako “gero arte” ezin zuzenagoa.

Eliza baino, nik aukeran nahiago hilerria. Hiletekin konparatuta, lur-emateak intimoagoak dira, politagoak. Irudikatzen dute ingelesez *closure* esaten zaion hori, ziklo baten amaiera hain ongi adierazten duen hitz soila; agian horregatik hartzen dira hilerrietan elizetan onartzen ez diren lizentzia umoretsu horiek. Hilerrian nengoela jaso nuen, justuki, Valentinaren dolumin mezua, Stockholmeko aireportutik zuzen zuzenean nire mugikorrera. Sentitzen zuela, kongresu batera zihoala eta pendiente genuela bueltatxo bat hilerriren batean, heriotzaz hitz egiteko. Ea kongresuak ordu batzuk libre utziko zizkion, nik. Baietz berak, ostegun goiza. “Skogskyrkogården” idatzi nion; bisita zezala, eta hitz egingo genuela ondoren. Ok.

Skogskyrkogården Unescoren gizateriaren ondare den hilerria da, Asplund eta Lewerentz arkitektoek diseinatua. Hilerria paisaiagintza ariketa bikaina da, doluaren kontzeptuaren baitan diseinatua, non natura eta arkitektura bisitariaren aldaratean eragin dezaten pentsatuta dauden.

Almhöjden hausnarketarako zuhaiztia, esaterako, mendixka batean dago, sarreratik gertu: eskailerak igoz iristen da bertara bisitaria, eta igotzen joan ahala txikiagoa da eskailera-maila bakoitzaren altuera. Helburua da bisitaria errazago ibil dadin tontorrera ailegatu ahala, lasai sentitzea hausnarketarako toki honetara iristean. Almhöjdenetik Pizkundearen Kaperara doan kilometro eskaseko bidea, ondoren, zuhaitzez inguratua dago: urki negartiak lehenik, ohiko urkiak gero, segidan pinuak eta izeiak azkenik. Zuhaitzen segida zehatz honek bidea ilundu egiten du kaperara iritsi ahala, bisitariarengan malenkonía sortzeko intentzioz. Kaperatik beste ate batetik irtengo da bisitaria, espazio zabal batera, senitarteko eta lagunak aldarte hobean itzul daitezzen euren ohiko bizitzetara.

Bruno Tautek zioen arteak heriotzaren irudia izan nahi duela; alde horretatik, irudi ederra sortu zuten Asplund eta Lewerentzek. Besterik da diseinu-erabaki hauek esperotako efektua sortzen duten bisitariarengan, baina ehorzketarik espero ez dudanez Skogskyrkogårdenen, baietz pentsatzea erabaki dut. Eta pentsatzen jarraituz, Jorge Oteizak Donostiarako diseinatu zuen hilerri-proiektuan pentsatu dut, eta nire buruari galdetu diot zein forma erabiliko zituen Oteizak, zein ibilbide sortu, zein material, zein paisaia, zein lelo, “Izarrak Alde” izen iradokitzailea zezan proiektu frustratu horretan. •



Ilustrazioa: ANDER GORTAZAR BALERDI

{ asteari zeharka begira } Pello Otxandiano

Burujabetza prozesuaren agenda soziala

Azken boladan eztabaidagai da herri honen pultsu soziala moteldu ote den. Despolitizazioa gertatu dela, apalaldian gaudela, tentsioa galdu dela, jendea ez dela lehen bezala mobilizatzen, ez dagoela askapen prozesuak aurrera egin dezan beharrezko kapital sozialik; eta ondorioz, ezinezkoa dela prozesuaren hauspoa zatekeen agenda sozial bat definitzea. Nago eztabaida honek ertz ugari dituela, hiru atal bereiziko nituzke gutxienez.

Baga: Ukaezina da gizarte-joera mendealdar nagusien eragina. 2009an Aztikerrek egindako “Gazteak eta politika Gipuzkoan” –<https://youtu.be/x8FPJY1QJ4Y>– azterketaren emaitzak irakurrita mito batzuk zalan-tzan jartzen hasi ginen. Ordu hartan, gazte-belaunaldi berriek politikarekiko adierazten zituzten pertzepzioak errekonozitzea ere kosta egin zitzaigun testuinguru errepresiboak itota bizi ginelarik. Indibidualizazio prozesu sakon bat antzematen zen ikerketa horren emaitzen argitara. Orduz geroztik, hamarraldi bat igaro da, eta eskura bestelako daturik izan gabe, esango nuke joera horiek baieztatu eta kasuan sakondu ere egin direla. Globalizazio neoliberalak bete-betean jo gaitu bizi-moldeei dagokienez; ez gara hortik libratu gizarte gisa, ez gu ez beste inor, esan dezagun konplexurik gabe.

Biga: Esandakoa ukatu gabe, inpresioa dut prozesu sozialen emaitzak ebaluatzeko orduan aurreko ziklo eskemak erabiltzen ditugula. Estrategia aldatetatik honako urteekiko pertzepzio orokorra negatiboa da oro har ezker abertzalearen komunitatean. Blokeoa, etena, noraeza dira gehien entzuten diren berbetako batzuk. Zalantzarik gabe, halako estrategia aldaketa bat trantsizio prozesu konplexu bat baino ezin daiteke izan, eta krisia nabarmena da. Estrategia politiko-militarraren epikak ardazu duen komunitatea krisian dago, bilaketa prozesuan, epika berriak gorpuztu nahirik, gizarte-baldintza berrietara egokitze ahaleaginean. Eta horrek atentzioa merezi duela ez dut zalantzarik, herri honek ezker abertzalearen ekarpen politikoa behar duela sine-tsita bainago. Alabaina, faktore endogenoez gaindi, az-

ken urteetako bilakaera sozial eta politikoa aztertzerakoan, zer eta nola neurtzen dugu? Euskal Herria komunitate autozentratu gisa antolatu eta demokratikoki garatzeko ahaleginak zer eman du azken hamarraldian?

Badira ilunak baina badira argiak ere. Bi prozesu azpimarratuko nituzke, salto kualitatibo bat suposatzen dutenak herri-ikuspegitik: Nafarroako erregimenaren destituzio prozesua eta Lurralde Elkargoaren sorrera. Hiru gizarte-ekimen aipatuko nituzke, eredugarriak eta garaipen politikoak ekarri dituztenak: Gora Gasteiz, *fracking*-aren aurkako herri-ekimena eta armagabetzea. Bi mugimendu sozial zeinetan energia eraldatzailer berritua antzematen den: feminismoa eta euskalgintza –Korrika, Euskaraldia–. Eta azkenik, uste dut ez dakigula baloratzen azken urteetan udalgintzaren abaroan egin den herrigintza lana.

Higa: Diskurtso eta praktika eraldatzaileen eta burujabetza politikoaren aldarrikapenaren arteko lokarri batzuk eten dira. Eta horrek bai, kezkatzen nau. Hezkuntza komunitatean eztabaida bizia dabil –lan-baldintzak, murrizketak, eta abar– baina ez da eztabaida hori hezkuntza sistema propio baten behararekin lotzen eta hortik burujabetzaren aldarrikapena egiten, noiz eta inoiz baino agerikoagoak direnean marko autonomikoren mugak. Euskalduntze fase berri baten beharra ma-haigaineratu dute euskalgintzako ahots ezberdinek. Nabarmenak dira hemen ere egungo politiken mugak, eta baita jauzi kualitatiboak emateko burujabetzaren beharra ere. Inork ez du, ordea, publikoki EAEko Estatus Politikoaren eztabaida interpelatzeko zentzu horretan. Martxoak 8ko grebaren agirietan ere ez da herri-burujabetzaren eta feminismoaren arteko uztarketa argirik ikusten. Pentsioen gaiarekin beste hainbeste. Eta Eskubide Sozialen Kartak iragarri duen Herri Ekimen Legegileak ez ote luke Estatus Politiko berriak gizarte babeserako konpetentzia guztiak jaso ditzan aldarrikatu beharko?

Badago prozesua elikatu dezakeen agenda soziala. Badago kapital soziala. Herri-burujabetza izango ote den garai honetan egiten diren galdera nagusien erantzuna? •

ETORKIZUNA MIRIBILLA DA

Aniztasuna, euskara eta eskola publikoa osagai dituen errezeta eredugarria

Mundu txikiak dira ikastetxeak.

Astelehenetik ostiralera ordu batzuetan zehar errealtate ugari barnebiltzen dituzten elkarbizitzako espazioak dira. Ikasle bakoitzak kultura bat edo gehiago du atzean, hizkuntza bat edo gehiago, munduari begiratzeko ikuspegi diferenteak, bizimodu anitzak, egoera eta iragan ezberdinak... Kolore asko dago ikastetxe guztietan, pertsona adina kolore seguruenik, baina Bilbon bada bereziki koloretsua den eskola bat: Miribilla du izena, publikoa da eta kolore guztiak elkarrekin ipini ditu erakusteko tonaltate guztiak elkarren ondoan jarrita distira egiten duen ortzadarra osa dezaketela. Irribarrea ahoan gainera.

Miribillako eskolako geletatik egunero erakusten dute gozo egon daitekeela elkarrekin hezkuntza eta euskara ardatz dituen proiektu amankomun batean, norberak bestearen kolorea ikusi eta onartzen bado. Kolore guztiek batera duten indarrak poza eta indar kolektiboa areagotzen dituela aintzat hartuta, ikastetxeak kanpotik begiratuta duen irudia aldatzea lortu dute.

Gris argi eta zuri koloreko horma handiak ditu kanpotik Miribillako eskolak. Eraikina 2006an altxatu zuten, nahiko berria da beraz. Baina arazoak ditu ia sorreratik bertatik uren filtrazioak direla-eta, hezetasunagatik... Orain, eraikineko fatxadan ari dira konponketa lanak egiten.

Azken urteotan D eredua nagusitu da ikastetxean, oraindik ere A ereduaren zenbait talde badauden arren. Guraso

 **HEZKUNTZA** / Nerea GOTI

Euskal Herriko ikastetxerik anitzena izan daiteke Bilboko Miribilla auzokoa, hogeitaz jatorri baino gehiago eta hainbat erlijiotako ikasleekin. Arazo sozioekonomikoek ere isla dute eskolan, eta, hala, berdintasun ezari aurre egitea eta zailtasunen gainetik emaitza akademikoak hobetzea dute erronka. Elkarbizitza koloretsua, berriz, altxor dute.

elkarteak duela bost urte egin zuen proposamena eta Eskola Kontseiluak onartu egin zuen.

San Frantzisko, Zabala eta Bilbo Zaharra auzoetako haurrek ikasten dute eskolan, Euskal Herri osoko anitzena ziurten biltzen dituen familien jatorri, kultura, hizkuntza eta sinismenak kontuan hartuta. Familien ia erdia Euskal Herrian eta Estatu espainolean jatorria duten ijitoek osatzen dituzte. Hurrengo talde handiena jatorria Marokon duten familiek osatzen dute. Atzean

dituzte Errumanian jatorria duten ijito familiak. Ostean daude Euskal Herrira Algeria, Bolivia, Nigeria, Ginea Bisau, Senegal, Sahara, Kongo, Kamerun, Brasil, Nikaragua, Hondurasetik... heldutakoak. Arrazoi ezberdinengatik utzi zituzten atzean herriok eta egun euskal herritarrak dira. Eta eskola hartu dituen lurrarekiko lotune da neurri handi batean.

DOKUMENTALA, DENA ERAKUSTEKO

Eskolan zer giro bizi den argiago ikusi nahi duenak “Miri-

Miribillako eskola publikoko gela bat, eskola ordutegian.
Aritz LOIOLA | ARGAZKI PRESS



billa rules” dokumentala ikusi beharko luke. Bideografik Ekoizpenak, Euskal Herria Hamaka Kolore eta Miribillako Gurasoak elkartearen lanaren emaitza da. Dokumentala ez da ez ezeren hasiera ez amaiera ere, baina mugarri bat suposatzen du auzoan, ikastetxean... Kanpotik arazoz beteriko ikastetxea irudikatu duten aurreiritzien aurrean, aukerez beteriko eskola agertu dute.

Eskolan Oreka TX taldeak sortutako “Atanbora” kantaren inguruan sortutako dinamika berezia kontatzen du dokumentalak. Lehen begirada batean hezkuntza komunitate bat kanta baten koreografia prestatzeko soilik bildu bazen ere, dokumentalak argi agertzen ditu esperientzia horrek gela barruan eta kanpoan utzitako zapoak, sentsazioak... Protagonisten hitzekin ezagutarazten ditu. Dokumentaleko narratzailea den eskolako neskato batek dioen bezala, askotan entzuna zuen helduen ahotan “aniztasuna” hitza, zer esan nahi zuen oso ondo ez bazekien ere. «Eskolan 21 herrialde ezberdinetako jendea geundela mapa baten ikustean» ulertu zuen. «Hori aniztasuna da eta horretan lehenengoak gara!», esan zieten.

Lanak biltzen dituen iritzien artean, bada ekimenak arrazakeriaren aurkako mezu gisa duen indarra nabarmentzen duenik. Batzuek planteatzen dute berdin dela nongoa zaren, «euskarak eta eskolak» elkartzen dituela. Salatzen dute, askotan jasan izan behar dituzte ikastetxe ustez gatazkatsu batean izatearen inguruko aurreiritziak eta kezak, «eskola bera ezagutu gabe!».

Horregatik, dokumentalak ikastetxea zer den erakusteko eman dien aukera nabarmen-

tzen dute, «hemen benetan zer dagoen erakusteko eta Miribillari buruz dauden aurreiritziak eta daukagun estigma hori behera botatzeko».

HUNKITUTA, HARRO, ZORIONTSU

Komunitateko eragile ezberdinen adierazpenak bildu ditu dokumentalak. Abesbatza osatu, kanta prestatu eta koreografia eskaintzeko prozesua kontatzeko izan zituzten zailtasun eta kezkak jasotzen ditu. Erronka handia izan zen, ezberdina, lehen hurbilketa bat maila askotan, eta, hasiera guztietan bezala, ez zen erreza izan. Guztiek diotenez, entseguak, antolaketa prozesu guztia, esperientzia positibo bilakatu ziren berehala.

Narratzailearen hitzetan, kantaren koreografia ikastetxeko familien aurrean eskaini zuten agerraldi jendetsua ez da erraz ezabatuko auzokoen memoriatik. «Behin ere ez dut jendea egun hartan bezain zoriontsu ikusi!», dio narratzaileak dokumentalean, familia ezberdinen iritzien artean. Askoren begietan gatazkatsu gisa ikusten den errealtate batek ikastetxe oso bat handi egiten duela erakusteak, egoera horrek berak aukera bat suposatzen duela frogatzeak, harrotasun sentimendu bat azalarazi zuen komunitatean. Arrazakeriaren Kontrako Egunean egindako agerraldia oso garrantzitsua izan zen sinbolikoki, baina beste ikuspegi asko ere aldatu zituen. Musika irakasleak nabarmentzen duenez, «abesti soil batekin beste proiektu guztiekin baino askoz gehiago lortu ditugu».

Denboran atzerago hasi zen dena, eragile ezberdinen artean izandako hainbat elkarriketaren ondoren. Eskolako ikasleak, maisu-maistrak, gu-

«Miribilla Rules» dokumentalak aniztasunari balioa ematen dion eta elkarbizitza bultzatzen duen eskola publikoaren ibilbidea marrazten du, ikastetxeko kideen testigantzak erabiliz

Ikasle baten amak «oso garrantzitsua den gauza bat» ez ahazteko eskatzen du: «Gurasook agian atzerritarrak izango gara, baina ume hauek ez dira atzerritarrak»



Haur bi, Miribillako eskola publikoko ikasgela batean. Aritz LOIOLA | ARGAZKI PRESS

rasoak... protagonista nagusiak dira, zalantzarik gabe, baina bada proiektuari forma eman dion aktore garrantzitsua ere: kultura aniztasuna ardatz elkarbizitza bultzatzen duen Euskal Herria Hamaika Kolore herri ekimena.

Euskal Herrian ezagunak dira elkartaren lana, mezuak eta berauek zabaltzeko egin ohi dituzten ekimen koloretsuak. Horren adibide dira Aniztasun Eguna, Hamaika Kolore Fest, ardi itxurako Burubeltz maskotarekin hainbat jai herrikoitan aniztasunaren ikurra zabaltzeko egiten dituzten kalejirak... Elkarteak argi dauka etorkizuneko gizartearen eskolatik hasten dela, eta aukera berdintasuna bermatu behar duen eskola publikoan dagoela gako.

HEZKUNTZA, KOHESIORAKO TRESNA

Txekun Lopez de Aberasturi Euskal Herria Hamaika Kolore elkartearen kideak hurbiletik ezagutu du Miribillako prozesua. Ekimenaren sorrerari buruz aritu da GAUR8ekin. Komentatzen duenez, kezka handia zegoen eta dago elkartean Gasteizen eta Euskal Herriko beste puntu batzuetan zenbait ikastetxe publikotan sortzen ari diren «segregazio poltsak» direla eta.

Gero eta agerikoagoak dira ikasle migranteen kontzentrazio handiak, maila sozioekonomiko baxukoak gehienetan, A eremuan ikasten dutenak, beharrezko arreta eta hezkuntza-errefortzuak falta dituztenak... Egoera kezkagarri baten osagaiak dira horiek guztiak. «Segregazioa, marjinalitatea... erloju-bonba bat izan daitezke gerora, gatazka iturri itzela, batik bat hainbat arlotan komunitate horiei laguntzeko baliabideak jartzen ez badira», ute du Lopez de Aberasturik.

Nabarmentzen duenez, desberdintasun ekonomikoaren aurkako borroka funtsezkoa da, eta, hezkuntzaz ari bagara, «kalitatezkoa eta euskalduna den hezkuntza eredu bakarra» behar dugu. Lopez de Aberasturiren ustez, «edozein jatorri eta maila ekonomikoko ikaslerik zuzendutako hezkuntza eredu bakar bat behar dugu. Hori da tresna onena gizarte-kohesioa eta aniztasunean elkarrekin bizitzea ardatz izango dituen etorkizun bat eraikitze ko gure herrian».

Euskal Herria Hamaika Kolore elkartearen kidearen ustez, argi dago euskarak testuinguru horretan duen garrantzia, «aukera berdintasunerako nahitaezko tresna» gisa batez ere. «Bagenekien Miribillako eskola publikoa, jatorri eta kultura kopuruari dagokionez Euskal Herriko ikastetxe anitzenena izanik agian, eta Bilboko auzorik marjinaletako batean kokatuta izanik, D eredura pasatzea erabaki zutela. Hala, kasua aztertzea erabaki genuen. Deskubritu genuen, dokumentalean ongi islatzen den moduan, marjinalak edo atzeratuak barik, benetako abangoardia direla: pobrezia zigortutakoaren benetako iraultza bat ematen da eskolan, diskriminazioaren aurkakoa baina baita berdintasun ezaren aurkakoa ere, aukera faltaren kontrakoa, aurreiritzien kontrakoa, arrazakeriaren, segregazioaren, marjinalitatearen kontrakoa».

Kontatzen duenez, hezkuntza komunitate oso baten «borroka titanikoa» ikusi dute Miribillan, eta borroka horretan irakasleak, familiak, ikasleak eta auzoa elkar hartuta daude, haurrei ahalik eta hezkuntzarik onena emateko, euskaraz. Ikasleek etxetik dakartzaten



Eskola koloretsua da
zinez Miribilla.
Aritz LOIOLA | ARGAZKI PRESS

kultura, sinesmen, ohitura eta hizkuntzekiko errespetuan eraikitako hezkuntza proiektua da, «pentsa daitezkeen baldintza txarrenetan» aurrera egitea lortu duena. Gaineratzen duenez, borroka hori «miresgarria» da, dituen eraginak ez direlako ikastetxera soilik mugatzen: euskal gizarte osorako eredu bilakatu dira. «Aniztasunean eta kalitatezko hezkuntzan dago jokoan Euskal Herriko gizartearen kohesioa, elkarbizitza bera. Aldiz, proiektuak aurrera jarraitzen badu euren ahaleginari esker da, sarri mespretxuarekin eta instituzioen laguntza ezarekin topo egiten baitute; estigma ugariri aurre egin beharrean aurkitzen dira zenbaitetan».

OMENDU ETA AITORTU

«Miribillak helarazten dizkigun sentrazio eta emozioak erakutsi eta transmititu nahi genituen. Hobetzeko gogoia adierazten duen, gorputz eta arima aritzen den komunitate baten borrokari omenaldia eta aitortza da», nabarmendu du Lopez de Aberasturik.

Dokumentalean bertan jasotzen denez, askoz zabalagoa

zen hasiera batean planteatutako egitasmoa, baina instituzioen laguntza faltagatik nabarmen murriztu behar izan zuten. Bilboko kaleek ezagutu zuten Miribillako abesbatza eta koreografia, Oreka TX taldeak sortutako «Atanbora» kantant oinarrituta, baina ez zuten lortu EiTbko Gabonetako galan parte hartzea.

Duela gutxi, Bilboko Udalaren Iparra-Hegoa saria jaso du Miribilla ikastetxeak eskola solidarioen atalean, abesbatza-aren esperientziaren bidez elkarbizitza bultzatzeagatik eta egitasmoa islatzen duen «Miribilla rules» dokumentalagatik. Juan Mari Aburto alkatearen eskuetatik hartu zuten saria.

Udalaren aitortza eskertu zuten, baina ez ziren isilik ge-

«Miribillak helarazten dizkigun sentrazio eta emozioak» transmititu nahi izan ditu Euskal Herria Hamaika Kolorek dokumentalean. Argi dute aniztasuna eta hezkuntza gako direla

Bilboko Udalaren saria jasotzeak ikastetxearen irudia aldatu du bai auzo barruan bai kanpora begira. Familien artean gauza asko aldatu dira, muga batzuk desagertu diren sentrazioa dute

ratu: eskolan duten errealitatea zabaltzeko aukera zuten eta egunerokoan dituzten zailtasunak azaldu zituzten. «Sariak ondo daude, baina guk ekintzak nahiago ditugu». Guraso elkarteko ama batek saria jasotzeko ekitaldian botatako esaldiak dena esaten du.

Guraso elkarreak zenbait eskaera egin ditu. Udalari luzatutako en artean 2006an altxatutako eraikinean behar diren konponketak egiteko, arazo ugari baitituzte aspalditik uren filtrazioekin, hezetasunarekin... Era berean, euskara bultzatzeko gehiago egin deza-keela uste dute. Azaltzen dutenez, duela bost urte onartu zen ikastetxea D eredura pasatzea, baina bistakoa da komunitatearen ezaugarriengatik euskarak bultzada behar duela. «Bada, hori proiektuekin eta baliabideekin egiten da», nabarmentzen dute gurasoek.

Era berean, nabarmentzen dute ezagunak direla ikastetxean dauden hezkuntza-mugak eta horiei behar bezalako tratamendua ematea posible dela profesionalen laguntzarekin. «Gu ikastetxean gertatzen denaren lekuko gara, baita fa-

milien eta ikastetxearen arteko nolabaiteko lotura ere. Beraz, ikusten ditugun hutsune guztiak jaso eta horientzako konponbideak eskatzea ere bada gure lana», azaltzen dute.

INTEGRATZAILEAREN FIGURA

Argi dute, bestalde, eskola ezaugarri zehatz batzuk dituen auzo batean kokatuta dagoela, eta, ondorioz, errealitate horren isla dela jolastokian eta geletan gertatzen dena. Familiek diotenez, auzo elkar-ak bertako errealitatearen diagnostikoa egin dauka eta auzoen koordinakundearen bidez helarazi dio Udalari beharrezkotzat dituen zenbait neurriekin. «Baina Udalari kostatzen zaio diagnostikoari kasu egitea, eta, kasu egiten ez badu, egingo duen guztia benetan behar denari bizkarra emanez egingo du».

Ikastetxera itzulita, familiek aipatzen dute faltan botatzen duten figura bat: integratzaile sozialarena. Batetik, garbi dute diziplina ugari biltzen dituen dispositibo bat beharko zela irakasleek beren lana egin ahal izateko eta berezko dituzten zereginetatik kanpo sortzen zaizkien egoerei aurre egiteko profesional adituen laguntza izateko. Egun badituzte indarrean Hamaika Esku programa irakasleen egonkortasuna bermatzeko eta bestelako laguntza zehatz batzuk ere, baina, familien ustez, berez existitzen ez den «integratzailearen» figurak laguntza handia emango lieke. «Figura hori berez ez da existitzen eta Hezkuntza Departamentuak horrelako kontratazio bat egitea baztertzen du. Baina Udalak nahi balu bidera lezake horrelako oinarritzko zerbitzu bat eskolan, edo Osakidetzak psikologia zerbitzu bat...».

«GATAZKAK, ARAZOAK... HORI EZ DA GUK IKUSTEN DUGUNA. HEMEN ARLO ASKOTAN LAN EDERRA EGITEN ARI DA: AKADEMIKOKI, HARREMANETAN, ELKARBIZITZAN...»

Asteartea da. Egun horretan kokatu dute Miribillako eskola publikoan hitzordua GAUR8rekin, guraso elkarteko amak bildu ohi diren eguna baita. Afaf El Haloui eta Maria Silva Gordonekin hasi dugu solasaldia, eta, jarraian, Izaskun Alonso ikastetxeko zuzendaria gehitu da hizketaldira. Hausnarketa ugari eta oso ezberdinak sortu dira elkarriketan. Halouik eta Silvak nabarmendu dute elkarbizitza bultzatzeko dinamikak gauza berri asko ekarri dituela eskolara: abesbatza osatu, “Atanbora” kanta prestatu eta agerraldi publikoa egiteko prozesua jasotzen dituen “Miribilla Rules” dokumentala, Ipar-Hegoa Bilboko Udalaren saria eskola solidarioen atalean... «Ekitaldi berezia izan zen, nazionalitate, etnia eta erlijio ezberdinetako jendea bildu zituen harmonia, bake eta alaitasun giroan». Azaldu dutenez, «lan handia» egin zuten, baina «guk geuk asko ikasi dugu esperientzia honekin eta esker on ugari jaso ditugu ekimena abian jartzeagatik». Halouik nabarmendu duenez, «guretzat ikastetxea zerbait berezia da. Jolastokiko uneek elkar ezagutzeko aukera eman digute, ditugun aurreiritziez konturatzeko. Horrek gauza asko argitu eta ezberdinekin bizitzen erakutsi digu», dio Halouik. Zehazten dutenez, zazpi erlijiotako kideak daude ikastetxean eta elkarren ondoan gainontzekoen sinesmenak errespetatuz bizi daitekeela frogatu dute.

Guraso elkarte lotura indartsu bat da familien eta zuzendaritzaren artean, baita auzoarekin ere. «Batzuetan kontatzen dizute zer gertatzen zaien eta saiatzen gara orientatzen, bideratzen...». Nabarmendu dutenez egoera ezberdin asko biltzen dira eskolan, arazo ezberdinak eta delikatuak zenbaitetan, horrek irakasleentzat suposatzen duen ahalegin bereziarekin. «Hemen behar bereziak daude eta irakasleek baliabideak behar dituzte heziketa arrakastatsu batera heltzeko», komentatu du Silvak. Horregatik,

integratzaile baten figura eskatu dute. Azaltzen dutenez, segregazioa baino, gakoa eskola komunitate batek dituen hezkuntza mugak aztertzea eta horietan laguntzeko baliabideak jartzea da. «Argi dago auzo honetan dagoen maila sozioekonomiko eta kulturalagatik, bertoko biztanleriak hezkuntzan ere behar bereziak dituela».

Alonsoren iritziz, bizitako esperientzia «jarraipen» bat izan da. Dioenez, «guraso elkarteak egindako lan ederraren ondorioz, kanpotik jendeak beste era batez ikusten gaitu, nahiz eta gure lana betikoa izan. Metodologia eta irakasleen inplikazioa berdina da irakasleentzat egunerokotasunean. Eguneroko borroka da emaitza akademikoak hobetzea; hemen maila sozioekonomikoa oso baxua da, eta, horregatik, gure erronka nagusia, ikasleen emaitza pedagogikoak hobetzea da». Gaineratu duenez, Bilboko

Udalaren sariak lagundu du eskolaren irudia garbitzen, jendea hurbilarazten... «Auzoko jende batek ez du beti kultura aniztasuna ikusi, baina bai gatazkak, arazoak... Eta hori ez da guk ikusten duguna. Hemen arlo askotan lan ederra egiten ari da: akademikoki, harremanetan, elkarbizitzan... Aurten ikusten dugu lasaiago gaudela eta jende gehiago hurbildu dela eskolara».

Alonsok ez ditu zailtasunak ezkututzen, baina horiei aurre egiteak eta hezkuntza komunitatearen aldetik gero eta erantzun positiboagoa jasotzeko oso ikastetxe berezi egiten dituela dio. Irakasle berri baten kasuan baliteke Miribilla esan eta kezka sortzea, baina 22 urteko eskarmentua duen profesionalaren hitzetan, ikastetxe honek aukera piloa ematen ditu, «bai profesionalki bai norberak bere burua ezagutzen ikasteko». Nabarmendu du,

bestalde, egun Euskal Herria dela «harrera herrialdea» eskola komunitatearentzat, eta euskal kultura eta euskara eskolako kultura ezberdinen «puntu komuna», eta hori ere nabaritu dutela onarpenean, jarreretan...

Auzoan ugariak dira biztanle mugimenduak, eta, ondorioz, ikasleen artean ere ugariak dira joan-etorriak, horrek dakartzan gorabeherekin. Beste ikastetxe batzuetan pentsaezinak diren egoerak ematen dira, gauza asko pilatzen dira eta horietako asko, gainera, atzetik datozen kontuak dira. Kultura aniztasuna, arazo sozioekonomikoak eta ikasle guztiek beharrezko duten maila akademikoa bermatzea egunerokoan uztartu behar diren elementuak dira, «eta beti ez da erraza». Baina, Alonsok dioenez, «Miribillan maitasun dosi handiekin ikasten eta irakasten da, eta horrek ere markatzen du».



Argazkian, Afaf Haloui eta Maria Silva Gordon guraso elkarteko kideak eta Izaskun Alonso ikastetxeko zuzendaria. Aritz LOIOLA | ARGAZKI PRESS

EZER EZ DAGOEN LEKUAN ESKUAK GARBI; ZERBAIT DAGOEN LEKUAN, BEGIAK ARG

amagoia.mujika@gaur8.info

Horixe esaten da ataundarrei buruz, behatzaile finak direla eta kontatzaile apartak. Etnografian, mitologian eta ahozkotasunean oparoa den naturgune zabala da Ataun, atmosfera bereziko lurra, galtzera doan mundu baten arrasto poxi bat. Jose Migel Barandiaran bertan jaio zen eta begirada bizkorrez laster konturatu zen inguratzen zuen altxorraz. Barandiaranek eta segidakoe egindako lanari begira egon baina, lanean segitzea nahiago du Atauniker elkarteak.

Lazkaotik joanda, zubia pasata, “Ataun”, ematen du ongietorria seinaleak. Mendi tartean barna, inbutu batetik sartzen da bisitaria. Umarkitik Lizarrustira, aparteko atmosfera bat arnasten da; toponimia aberatsa, istorioak eta historia kondairetan eta ipuinetan kontatzen duen jendea, ahozkotasun bizi-bizia... Denborak beste pisu bat hartzen du Ataunen, aspalditik gatzela kontatzen baitute une oro bazterrek.

«Umarkin hasten da Ataun. Eta bukatu? Ez dakigu. Nafarrekin beti borrokan ibiltzen omen ziren ataundarrak; Ataun eta Etxarriren arteko muga Lizarrustin non ote zegoen eztabaidan. Tratua egin zuten: ‘Halako egunetan, eguerdiko hamabietan bakoitza bere herriko plazatik atera dadila, eta elkarrekin topo egiten dugun tokian jarriko dugu mugarria’. Hala abiatu omen ziren. Ataungoak, Markesanea esaten zaion gainera iritsi zirenerako aspertuta omen zeuden, eta hantxe geratzea erabaki zuten, ‘nahikoa diagu’ esanez. Handik puska batera azaldu omen ziren Etxarrikoak eta hantxe dago muga jarria, Markesanean. Hor dago Gipuzkoa eta Nafarroa arteko mugarria. Mugarri asko daude, hala ere». Azalpen ederra Jexux Aizpurua Barandiaranena. Atauniker elkarteko kidea da eta bere eskutik egin dugu sartu-irtena Ataunen. Bertan, dena kondairetan, ipuinetan, esakunetan azaltzen da. Gipuzkoako herririk luzeena da, 14 kilometro pasatxorekin.

Ataun Jose Migel Barandiaranekin estu lotuta dago. Hark egin zuen ezagun bere jaioterria. Barandiaran 1889ko azken egunean jaio zen Perune-Zarre baserrian. Akaso jairoz gero aire berezi hori arnastu zuelako izango da, baina azkar konturatu zen inguratzen zuen mundua galtzera zihoala. Mendez mende iraun bazuen ere, betiko galtzeko zorian ze-



Jexux Aizpurua Barandiaran, Atauniker elkarteko kidea, Ataungo udaletxearen parean. Udaletxean, Juan Arin Dorronsorori buruzko panela ikus daiteke. Jon URBE | ARGAKZI PRESS

goela igarri zuen. Eta horregatik hasi zen euskal kultura biltzen, aztertzen, jasotzen, ahanzturatik salbatzen. Apai-za, antropologoa eta etnografoa zen Barandiaran eta bere lan egiteko moduak bi zutoin nagusi zituen; gogo bizia eta zientziaren metodo zorrotzak –Aranzadik parte garrantzitsua izan zuen horretan–.

GEHIEN IKERTUTAKO HERRIEN ARTEAN

Barandiaranek hasitako bidera batu ziren gero Juan Arin Dorronsoro, Joxe Arratibel, Joxe Martin Apalategi... guztiak ataundarrak eta guztiak ikertzaile eta biltzaile finak, bakoitza bere esparruan. Ataun, segur aski, Euskal Herrian gehien ikertu diren herrien artean dago.

Juan Arin, Barandiaranen hurbilekoa zen, elkarren ondoan jaioak ziren eta txikitatik lagunak. Barandiaran Ataundik kanpo zebilenez ikerketa lanetan, beti izaten zuen kezka eta pena Atau-

nen ikertu gabeko kontu asko zegoela eta. Esaten da Barandiaranek bideratu zuela Arin, Ataungo kontuak bildu eta ikertu zitzen.

Joxe Arratibelek, berriz, sekulako lana egin zuen garai bateko kontuak, ipuinak eta bizimoduari buruzko kontakizunak biltzen. Ahozkotasunak pisu handia izan du betidanik Ataunen eta hor bilketa lan aparta egin zuen Arratibelek. Gero, hark bildutakoak aztertu zituen Joxe Martin Apalategi antropologoa izan zen. «Ematen zuen Apalategik segituko zuela aurretik besteek irekitako bidea. Baina gazterik hil zen eta soka eteteko arriskua ikusten zen», azaldu du Jexux Aizpurua Barandiaranek.

Atauniker elkarte 2004. urtean sortu zuten, aurretik egin denarekin konformatu eta hari begira ezin dela egon ulertuta. «Hutsune bat sumatu genuen eta lanean hasi ginen helburu batekin: aurrera egitea. Aurrekoek egin zutena



ondo dago, baina horrek segida behar du. Etxean lozorroan geratu gabe, elkarrengana bildu eta kulturari indar pixka bat emateko helburuarekin hasi ginen lanean», azaldu du Aizpuruak.

Hartara, herritarren testigantzak biltzen hasi ziren, bizimoduari buruzko kontakizunak. «Garbi daukagu belau-naldi bat joaten denean, gauza asko galduko ditugula. Hori ez galtzeko hasi ginen etxez etxe bilketa egiten, grabazioak egiten. Beharrezkoa ikusten genuen testigantza horiek jasotzea, gordetzea eta zabaltzea».

Lan horretan hasi eta bi biografia osatu zituzten Atauniker elkartekoek. Bat, Joxe Kerejeta organo-jotzailearena (1897-1986). Ataungo San Martin elizako organo-jotzailea izateaz gain, konpositore bezala ere lan handia egindakoa. «Familiarekin hartu-emanen hasi eta berak konposatutako pieza mordoa topatu genuen. Bere biografia osatu eta kontzertu txiki bat

Ezkerrean, Jose Migel Barandiaranen lanerako txokoa. Eskuinaldean, Jentilen Etorreraren une bat; jentil txikiak herriko teilatu batean igota.
Juan Carlos RUIZ- Idoia ZABALETA | ARGAZKI PRESS

«Mitologia aberatsa izan da eta zortea izan dugu, Barandiaran bezalako tipo argi bat konturatu zelako bere mundu hori bazihoala eta horko jakintza bildu beharra zegoela, gerora gordeta gera zedin»

«Horregatik sortu genuen Atauniker elkartea, garai batean gure herrian bertako ondarea biltzeko egon zen sentsibiltate hori itzal ez dadin. Askotan bertako jendea izaten da bere herriaren inguruan ezjakinena»


ere antolatu genuen», azaldu du Ataunikerreko kideak.

Bide beretik, Felipe Arin Dorronsororen (1881-1941) biografia ere osatu zuten. «Enrike Zurutuza ataundarra da eta kanpoan bizi da. Hura etorri zen gugana, Felipe Arin Dorronsoro epaile magistratuari buruzko biografia bat egiten ari zela-eta. Zurutuzak pertsonalki ezagutu zuen epailea eta hark esandako kontu asko zituen bilduak.

Biografia horretan daude jasoak, bestela galdu egingo ziren-eta».

MITOLOGIA

Mitologiak, zalantzarik gabe, sekulako garrantzia dauka Ataunen. «Mitologia aberatsa izan da eta zortea izan dugu, Barandiaran bezalako tipo argi bat konturatu zelako bere mundu hori bazihoala eta horko jakintza bildu beharra zegoela, gerora gordeta gera zedin. Belaunaldiz belaunaldi galtzen joan da. Guri ere etxean zeozer kontatzen ziguten, baina ez gehiegi. Gerora joan gara irakurtzen, deskubritzen eta balioa ematen. Hain justu horregatik sortu genuen Atauniker elkartea, garai batean gure herrian bertako ondarea biltzeko egon zen sentsibiltate hori itzal ez dadin. Askotan bertako jendea da ezjakinena; Euskal Herri osoan famatua da Ataun, baina, akaso, bertakoek ez dakite herriaren historiaren berri. Hori konpondu nahian gabiltza».



ALDAPAROA

San Martin plazan irakur daiteke 1787ko abuztuaren 12an “Gaceta de Madrid” egunkarian jasotako albistea. “Ataungo Miraria” izendatu zuten bezperan gertatutakoa. Hortxe, orain albistea jasotzen duen oroitarrria dagoen tokian, Aldaparoa zegoen. Ataungo errota bertan zegoen eta kanaleko ura biltzen zen putzua zen Aldaparoa, 2,5 metroko sakonera ingurukoa. Herriko igerileku bihurtzen zen Aldaparoa, gazteen aisialdirako toki aproposa. Abuztuaren 11 hartan, baina, bi haur txiki agertu ziren bertan itota, bi eta hiru urteko bi neskato. Herritarrak hara bilduak ziren, haurren amak tartean, eta hiltzat ematen zituzten denek. Handik bi zirujau pasatu omen ziren une horretan eta haurrak salbatzeko ahalegina egingo zutela esan zuten, ezagutzen zuten teknika berezi baten bidez. Herritarrek ez zuten fede handirik, haurrak hilak zeudela uste baitzuten. Zirujauak, zigarrokina piztu eta kea haurren ipurtzulotik bota zuten. Hamabost bat minutura, bi urteko neskatoa bere onera etortzen hasi zen. Zazpi minutu geroago, hiru urtekoa hasi zen bizkortzen. Albisteak kontatzen du erabat bizkortu zirela bi neskatoak eta arratsalde hartan bertan herritik barna ikusi zituztela jolasean.



San Martin plazan irakur daiteke Aldaparoan gertatutako pasadizoa. Jon URBE | ARGAZKI PRESS

Ezkerrean, 1740. urteko Ataungo herriaren plano bat. Atauniker elkarteak plano zaharberritu eta erreplika bat egin du. Eskuinean, Aitzalde iturria. Naturgune oso aberatsa da Ataun.

Jon URBE- Andoni CANELLADA | ARGAZKI PRESS

1981. urteaz geroztik egiten da Ataunen Jentilen Etorrera. Segizioa lehenbizi eta antzezpena gero. «Sekulako lana ematen du. Lehen urtero egiten zen, eta, orain, bi urtez behin». Horrez gain, azken urteotan ekainaren bueltan gauez ibilaldi mitologiko zoragarria egiten da, San Gregoriotik hasi eta San Martinerraino. Urtez urte jende gehiago biltzen da gaueko ibilaldi horretara.

1740. URTEKO ATAUNGO PLANOA

Ataun aparteko naturgunea da. «Industriarik ez da izan eta naturgune bezala sekulakoa da, ez daukagu saltzeko», nabarmendu du Aizpuruak. Herriak badu, baina, berezitasun bat: herriaren herena inguru jabetza pribatukoa da. Lehen, Valmedianoko markesarena eta, orain, haren ondorengoena, Infantado-ko dukearena zehazki.

«Lazkaon badago palazioa. Erdi Aroan, bertako jauntxoa egiten zen Goierri buru. Lazkaoko jauntxo haren

Lazkaoko palazioan Ataungo plano zahar bat zegoela jakin zuten, 1740. urtekoa. Planoa zaharberritu eta erreplika bat egiteko aukera izan zuen Ataunikerrek, hainbat erakunderen laguntzarekin. Erreplika udaletxean dago

Eskolako ikasle nagusienekin ibilaldi gidatuak egiten dituzte, ikastera herritik kanpora joan baino lehen. «Beren herriari buruzko istorioak kontatzen dizkiegu; lehenengo, jakiteko eta, jakin eta gero, maitatzeko»

mende zeuden pasabideak, errotak, Elizako hamarrenak... berak menderatzen zuen ingurune hau guztia. Gipuzkoan, jauntxo batzuk Gaztelaren aldekoak ziren, eta, beste batzuk, Nafarroaren aldekoak. Lazkaoko jauntxoa Gaztelaren aldekoa zen. Auskalo zein mesederen truke, Lazkaoko jauntxoak Ataunen herena bere eskutara pasatzea lortu zuen. Lizarrustitik abiatzen zarenean, hor dena basoa da, pagadi zoragarria. Hori guztia jauntxo horrena da», azaldu du Aizpuruak. Bere ustez, pagadia da oraindik hain justu jabetza pribatua delako. «Historian zehar ikusi da pagadia zegoen tokian, pinudia jarri dela. Ataunen diru-iturririk ez dago eta pinua eta bestelakoak sartzen joan dira historian barna, diru-iturri zirelako. Ulertzekoa ere bada. Baina pagadi hori markesarena denez, bere horretan mantendu da».

Azken bi urteetan Atauniker elkarteak harreman zuzena izan dute jauntxo horren ondorengoekin. Izan ere, Lazkaoko palazioan, jauntxo horren sortetxean, Ataungo plano zahar bat zela jakin zuten. «Erreferentzia bat baguen. Hain justu, Juan Arin Dorron sorok aipatzen zuen gerra aurretik Lazkaoko palaziora joan zela eta bertan ikusi zuela 1740ko plano bat. Berak plano hartan ikusitakoa marraztu eta gerora argitaratu egin zuen aldizkari batean. Toponimo batzuk agertzen ziren bertan. Horren bueltan, Lazkaoko palazioan sartzeko baimena lortu genuen. Dukearen administrazio lanak atunduratu batek egiten ditu eta haren bitartez. Palazioa oso gaizki dago, oso hondatuta eta plano ere nahiko egoera kaskarrean topatu genuen. Azkenean, tratua egin genuen dukearekin: plano berritu eta txukundu beharra zegoen. Guk esan genion guk zaharberrituko gnuela plano hori, eta, trukean, behin berritutakoan erreplika bat egin behar gnuela. Berak orduan ez zion garrantzia handirik ematen planoari. Orain ematen dio garrantzia, duen balioa ikusi duenean. Plano hori berritzeak sekulako gastua ekarri du», azaldu du tratua. Kutxa Ekoguneak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Orkli Kooperatibak eta

Ataungo Udalak lagundu dute Ataunikerrek gidatutako zaharberritzea aurrrera eramaten. Egun, Ataungo udaletxean dago ikusgai erreplika.

IBILALDI GIDATUAK

Ondarea jaso, gorde eta erakutsi. Hori xe, Ataunikerren norabidea markatzen duena. Horrela hasi ziren duela lauzpabost urte eskolako umeekin ibilaldi gidatuak egiten. «Ataungo eskolako Lehen Hezkuntzako seigarren mailako ikasleak hartzen ditugu, 11-12 urtekoak. Datorren urtean herritik kanpora joango dira Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza egitera, beste mundu batera, beste unibertso batera. Eta pentsatu genuen horiei zerbait erakutsi behar zitzailela joan aurretik. Eta horrela egiten dugu urtero, udaberri bueltan, eskolako azken mailako haurrak hartu eta ibilaldia egiten dugu; San Gregoriotik hasi, Barandiaranen etxea erakutsi, erreka ondotik naturari buruzko azalpenak eman...», esan du Jexux Aizpuruak.

Ataungo berezitasuna Mediterraneo-ko Artea da. «Arraroa da Kantauri itsasoaren isurialdean Mediterraneo-ko Arte egotea, baina halaxe dago hemen». Beste berezitasun bat, Ataungo domoa edo Aitzartea. Fenomeno geologiko ba-

ten ondorioz, mendialdea borobila da. Jentilbaratza, Aizkoate, Aizkorrandi, Arastortz, Agautz, Leizadi, Asundi, Loibideko Mailoak eta Ikarandieta gailurrek osatutako eraztun erako mendia da, Aralarko natura parkearen babesean. Agauntza ibaiaren bideari segituz, informazioa ematen duten panelak topatu daitezke.

«Haurrekin ibilbide hori egiten dugu. Gero, plazan, armariak-eta erakusten dizkiegu eta Lazkaoko markesaren istorioak kontatu. Eliza egin zenean, markesak bere armaria jarri nahi zuen eta berez hori egiteko eskubidea zeukan. Baina herritarrek ez zeuden konforme eta liskarra izan zen. Azkenean ataudarrek irabazi zuten Valladoliden izandako epaiketa eta herriaren armaria jarri zen. Istorio horiek kontatzen dizkiegu. Elizako organoa ere erakusten diegu, baita barruan dauden armariak ere. Beren herriari buruzko istorioak kontatzen dizkiegu; lehenengo, jakiteko eta, jakin eta gero, maitatzeko», azaldu du Ataunikerreko kideak.

Bestelako ibilaldiak ere egiten dituzte, helduen taldeekin, kobetan eta trikuharrietan barna. Izan ere, Ataunen 300 kobatik gora daude katalogatuta. Horien artean, asko dira duela 5.000

urteko gizakiaren aztarnak biltzen dituztenak. Troskaetako koba da ezagunenetakoa. Kilometro bateko luzera du eta amaieran laku txiki bat dauka. Duela 20.000 urte inguru hartzen bizitoki eta hilobi izan zen eta bertan topatu ziren, hain justu, bi hartzen hezurdurak. Donostiako Zorroaga Museoa daude.

Trikuharriak edo jentilarriak ere ugari daude. Horiak babestu asmoz seinalizazio zehatza dago jarrita –Aranzadi Zientzia Elkartearen, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Ataungo Udalaren eskutik– eta horietan barna ere antolatzen dituzte ibilaldiak Ataunikerrekoek. «Herriko trikuharri guztietan QR kodeak daude, informazioa emateko», zehaztu du Aizpuruak.

JOXANTON ARTZEREN EKARPENA

Bistan da Atauniker elkartearen lanak ertz asko dituela, Ataungo herriak interesguneak adina. Joan den urtarrilean zendutako JoxAnton Artze artista handiarekin ere izan dute hartu-eman. Artzek ama Ataungoa zuen, Benita Agirre. «Amaren aitzakian, Atauna hitzaldi bat ematera etortzeko esan genion 2010. urtean. Pentsatu genuen hitzaldira etortzen zirenean zerbait ematea, gerora ere hitzaldi harekin akordatzeko. Artzeren olerki batzuekin bilduma txiki bat egitea pentsatu genuen eta ondo iruditu zitzaion. Olerkietako batzuk JoxAntonek berak aukeratu zituen eta beste batzuk, guk», azaldu du Aizpuruak.

Iritsi zen hitzaldiaren eguna eta ordurako liburuxkak prest zituzten, hitzaldira etortzen ziren herritarrei oparitan emateko. Hitzaldia baino ordu batzuk lehenago azaldu zen Ataunen JoxAnton Artze, etxean topatutako altxor bat hartuta: 1963. urtean Londrestik bere amari bidalitako gutun eder bat, eskuz idatzia. «Gutun huraxe sartu nahi zuen liburuxkan eta dagoeneko sorta bat ekarri zuen prestatuta, plastikatuta. Eskuz, banan-bana itsatsi genuen gutuna liburuxka bakoitzean. Ederki geratu zen gainera», gogoratu du Aizpuruak. «Ataunen orain urte batzuk arboltxo bat sortu zen...», dio Artzek amari buruz eskutitz horretan.



San Gregorio auzoan dagoen Barandiaran Museoa. Idoloia ZABALETA | ARGAZKI PRESS



Gorka Zozaia - @zotz_
Kimikaria

Gizateria 2050 (II): Gogo burujabetza

Serie honetako lehen artikuluan munduko populazioaren hazkuntza eta honek ekarriko dituen erronkak komentatu nituen, elikadura burujabetza proposatuz 2050 postkapitalista helburu hartuta. Gizateriaren emantzipazioa eboluzio kultural sakon batekin lotzen dudalako egin nituen nire David Attenborough naturalistaren hitzak, gizakiak espezie bezala eboluzionatzeari utzi eta eboluzioa orain kulturala dela baieztatzen duenean. Alta, ñabardura bat egin nahi nioke gaurkoan baieztapen horri, eta espezie bezala eboluzionatzeko dugun aukera parez pare zabalduko dut. Eskuen erabilerak ekarri zuen garunaren garapena izan bazen gure espeziearen sorrera markatu zuena, zer ekar lezake makinekin dugun harremanaren garapenak?

Gaur-gaurkoz makinak egiteko gai direna oso oinarritzko lanak dira eta, xakean edo Go jokoetan errege izanagatik, adimen artifiziala oso mugatuta dago oraino. Are, "Mundua 2050" eztabaidako adituen ustez (serie honi bide eman dion "El País"-ek antolaturiko foroa), komunikazioa, enpatia, sormena eta egokitzea eskatzen duten lanek gizakien esku jarraituko dute XXI. mendearen erdian. Foroan parte hartu duen Rafael Yuste entzunda, baina, zalantza sortzen zait eremu honetan bizkortze handi bat emango ez den, garunaren ezagutza ei datozen urrats kualitatiboen eraginez. Lerrootara maiz ekarri dudana zientzialari euskaltzaleak baieztatzen duenez, iraultza dator epe laburrean garunaren aktibitatea irakurtzeko metodoei dagokionez, eta, epe ertainean, akti-


bitate horren eta gogoaren arteko harremana deskodifikatzeko gai izango gara. Beste era batera esateko, mende erdia baino lehen pentsamenduak irakurtzeko –eta idazteko– gai izango omen gara!

Ezagutza horrek ekar dezakeen adimen artifizialaren bizkortzetik haratago, panorama are aztoratzaileagoa marrazten zaigu konputazio eta telekomunikazio teknologiekin batuz gero; garunak segapotoaren beharrik gabe jar litezke konputagailuekin harremanetan! Alegia, informazio bat bilatzeko telefonoari tap-tap egin eta pantailan irakurri ordeztu, pentsamendu baten bidez informazioa eskuratzeaz ari gara. Imajina ezazue egoera une batez...

Mugikorrekin dugun harremana maila kognitiboan aldaketak eragiten ari bada dagoeneko –"Egon" arti-

kuluan aipatzen nuen, adibidez, kontzentrazio eta pentsamendu abstrakturako gaitasuna galtzen ari garela dagoeneko–, zer ez da gertatuko garunak Internetera zuzenean konektatzean? Yustek berak dioenez, teknologia horrek gizakiok garuna garatzea edota garun gaixotasunak sendatzea ekar dezakeen bezala, pribatutasuna edo identitate pertsonala XX. mendeko zaharren kontzeptu izatera ere eraman ditzake. Halako eraldaketa sakonik ematekotan, ez al dira espeziearen eboluziorako, edota are, espezie berri baten sorrerarako baldintzak jartzen ari?

Etikoki jokatu beharra azpimarrazten du Yustek, eta nik ere, ez nuke jausi nahi prospekzioak marko kapitalista zalantzetan jarri gabe egitera. Baina gogoaren gaineko burujabetzarik lortzen ez badugu, nago ziborg eta *sapiens*-aren arteko gudak marka dezakeela XXI. mendea. •



«Androidea», Adrian Esquitinoren brontzezko lana (2017).

Adrian ESQUITINO

{ koaderno } Iker Barandiaran

Ardia eta, gainera, erregea

Ezagun batek esan dit asteburu-pasa Madrilera dioala. Han zer egiteko eta ikusteko asmoa daukan galdetu diodanean “El Rey León” ikusiko duela erantzun dit; besterik ez du aurreikusi egonaldiko jomugan, hori nahikoa erakargarria da berarentzat. Honezkero galdu dut musikal hori Madrilera ikustekoa zen hurbileko pertsonen zerrenda kopurua; itzela da! Zer dauka, bada, ikuskizun horrek ehunka (edo agian milaka) lagunaren asteburu baten agenda hala baldintzatze eta bidaia egitera motibatze?

Galdera hori eginda, gehienek diote txundituta gelditu direla, izugarrizkoa dela. Ezin kontrakoa esan hori ikusteak kultura edo, hobe esanda, entretenimenduaren esparruan halako erreferentzialtasun soziala hartu duenean eta sarrera bera eskuratzeko ere, itxaron zerrenda handia egin ostean, ondo ordaindu duzunean. Nik neuk ere ikusi nuen musika aspaldi (txistuak) Madrilen egin nuen egonaldi luzeago batean. Lagunaren kapritxo hartu genituen sarrerak, eta ez nuen sufritu hori ikusten, baina hortik liluratzer... Hasierako muntaia, eszenografia, dekoratu, jantzi eta karakterizazioek sortutako sorpresa gaindituta, aspertu egin nintzen. Ez da hainbesteko urrunera ere!

Ez dut uste hala bizi izan dudana bakarrik naizenik, baina beste inork ez du hala onartzen eta honek, antza, ez du geldiunerik. Urteak darama karteleran. Horren aurrean norbaitek esango dit zenbakiek agintzen dutela eta hori hala izanda, merezi(ko) duela. Gezurra! Antzeko beste adibide asko ditugu; gehiengoak ez du ezer eraldatzen edo hobetzen. Aldiz, badira zirrara askoz handiagoa eta mezu askoz aberatsagoa zabaltzen duten ehunka ikuskizun; honako hau familian ikusteko espektakulu landua bai, baina lausoagoa da, plano.

Adibide honek gogora ekartzen dit zein gutxi bilatu, arakatu eta aukeratzen dugun ikusi nahi duguna. Eta testuinguru honetan pelegrinazio antzekoa bilakatu

da musikal hori Madrilera ikustera joatea. Musulmanek bizitzan behin Mekara joan behar duten bezala. Batean erlijioa eta bestean usadio soziala; eta bietan artalde efektua.

Ohitura-animaliak garela baino, artaldean funtzionatzen dugula esango nuke nik. Informazio guzti-guztia klik batean eskura dugun honetan, ez gara marra batetik kanpo dagoenetik aldentzen, irudimen faltagatik, nagikeriagatik eta, batez ere, gehiengotik kanpo gure burua ez nabarmentzeko.

Marketin arina dauka “El Rey León”-ek, baina gailurra lortu du: tantaz tanta elikatzen da uste bat dagoelako ikusi beharrekota dela. Eta honek dauka indar handiena; jende guztiak ikusten du eta ez dago emaitza hainbesteko ez dela aitortuko duenik. Gurpilak bueltaka jarraitzen du.

Zerrendatu ditzagun bizitzan behin behintzat ikusi edo egin beharreko gauzak. Hartu denbora horretarako...

Zerrendatu ditzagun bizitzan behin behintzat ikusi edo egin beharreko gauzak. Hartu denbora horretarako... Eta orain, serio, benetan uste duzu horietako bat «El Rey León» ikustea dela?

ko... Eta orain, serio, benetan uste duzu horietako bat “El Rey León” ikustea dela?

Erregeen esamoldetik tiraka –beste ezer onerako ez dute balio-eta–, beste parekotasun bat irudikatu daiteke. Gogoan duzue kalera zaldi gainean biluzik irten zen erregearen kondaira ezaguna? Ba halaxe gabilta.

Eta aisialdiaren esparruan halakoak eta hainbeste ematen badira, egin kontu bestelako izaera duten eguneroko beste praktika batzuekin. Izan etorkinekin, erakundeekin, matxismo jarrerekin... Gure kabuz pentsatzen eta erabakitzen dugu, edo korronteari jarraitu besterik ez dugu egiten? •

Azken beldurra-ri» aurre egiteko bezperan, solasari ekiteko formalitate gisa har leza-keen galderari zalantza izpirik gabe erantzun dio. Oso pozik dagoela dio “Errementari” bere lehen film luzea amaituta. Espero izateko erantzuna bide da, baina ondo funtsatua, elkarriketan zehar suma daitekeenez.

Paul Urkijo oso gazte hasi zen zinemagintzan. Ilustratzailea izateko ikasi zituen Arte Eder-rrak, baina, fakultatean ikus-entzunezkoen inguruko zen-bait ikasgai zituenez, «saltsa horretan» hasi eta ohartu zen zinema oso baliabide indartsua dela istorioak kontatzeko. Behin hasita, berak ere egin ze-zakeela pentsatu zuen. Eta ba-dirudi egiteko gauza ez ezik gai ere badela. 18 urterekin hasi zen, fakultatean, lagunekin ur-tero pare bat film labur egiten, ia baliabiderik gabe; «gero zure pieza txikiak jaialdietara aur-kezten dituzu». Hiru dimen-tsioko programak kontrolatzen eta postprodukzioan zerbait egiten hasi zen, animazio labur bat egin zuen, “Iltzeak” izene-koa, eta horrekin lortu zuen sa-ria hurrengo film laburra ekoizteko inbertitu zuen.

Hainbat sari irabazi ditu, «ge-ro eta gauza konplexuagoak egiten nituen, ekipo handi-ago-arekin... hori izan da nire ikas-keta bidea». Fakultatean gidoi-gintzaren, zuzendaritzaren eta ikus-entzunezko diskurtsoaren gaineko ikasgai batzuk ere izan zituen, «baina gero, ikasketa, praktikoa izan da». Eta halako batean, luzera salto egitera au-sartu zen.

Martxoaren 2an ikusgai egongo da «Errementari» Euskal Herriko zinemetan.

Eta otsailaren 26an aurre-treinaldi bat egingo duzue Gasteizen.

Bai, bertan zerbait berezia egi-tearren. Ni gasteiztarra naiz, eta Gasteiztik gero eta produkzio gehiago ateratzen dira, azken biak “Errementari” eta “Mar-txoak 3”, eta guk hemendik egin dugu apustua. Normalean Euskal Herrian zinema gehiena Donostian edo Bilbon egiten da, historikoki ETB eta indus-tria gehiago egon delako. Eta hemen egindako gauza denez, hemen aurkeztuko dugu. Gai-nera, ekipo guztia gasteiztarra da, edo arabarra, eta horrekin ere apustua egin dugu.

Baita euskarari dagokionez ere.

Bai, Arabakoa da filmeko eus-kara ere. Inspirazio puntua “Pa-txi Errementaria” ipuina da, nahiz eta gero filmeko istorio-ak desberdinak izan. Baina kla-beak berdinak dira erabat. Eus-kal ipuina izanda, hasieran duda izan genuen. Logikoena euskaraz egitea zen, eta nik argi izan dut hasieratik euskaraz izan behar zuela, baina, jakina, merkatuak zer eskatuko duen pentsatzen hasten zara, eta produktore batzuek diru gehia-go eskaini ziguten gaztelaniaz edo ingelesez egin genezan. Hori nire esku geratu zen eta

«Beldurrak gainditzen bazaitu, ez duzu inoiz filmik egiten. Planteatzen dizutenean, balantza batean jartzen dituzu beldurra eta gogoa, eta zerk irabazten du? Nire kasuan, gogoak»

euskaraz egitea erabaki nuen. Nik hemengo, herriko zerbait nahi nuen, neurrigabea ez den zerbait... ez nuen beste aktore-rik nahi, esate baterako, filma-ren tamaina alda lezakeena. Eta, jakina, hizkuntzaren alde-tik, argi nuen. Gidoia idatzi nuen eta Gorka [Lazkano] eus-kara irakaslearekin hitz egin nuen berak jorratzeko. Argi neukan, era berean, istorioa XIX. mendean kokatuta dagoe-nez, filmak garai hartako eus-kara izan behar zuela, sinesga-rritasuna lortzeko, eta Gorkak proposatu zidan Arabako eus-karan egitea, Arabako herrixka batean gertatzen baita istorioa.



«Orain dela zazpi urte hasitako proiektuko hazi hartatik zer gelditzen den ikusi beharra daukat, noraino eraldatu den, eraldatu egiten baita»

Nik banuen Koldo Zuazoren lanaren berri, Gorkak adibide batzuk erakutsi zizkidan, gustatu egin zitzaizkidan, Gorkak Koldorekin hitz egin zuen, hirurok batu ginen eta berehala hasi ziren biak lanean. Horrela hasi zen prozesua. Hasieran Gorkak moldaketa zehatzago bat egin zuen, baina ulergarritasunaren aldetik arazoak eman zitzakeen; gero, nolabait orekatu egin zuen eta oso polita geratu da. Filmak horrela sinesgarritasuna lortu du antzinako ukitu horrekin, eta, beste alde batetik, puntu exotiko bat hartu du, euskaraz dakigunok sumatuko duguna. Oso-oso ondo geratu da, oso harro nago horrekin.

Ospe handiko aktore bat, izar horietako bat ekarrita, zer gerta zitekeen?

Beharbada, proiektua eklipsatu zezakeela pixka bat, esate baterako. Nik ez dakit produkzio mailan zer izan zezakeen horrelako aktore bat ekartzea; normalean ezagutzen dudan jendearekin lan egiten dut. Gainera, Euskal Herrian oso aktore onak daude, beteranoak, Kandido Uranga bezala, eta oso hurbileko pertsonak dira. Edonola ere, nik baneuzkan aktoreen izenak pentsatuta. Argi neukan Kandidok Patxi egitea nahi nuela, Ramon [Agirre] ere argi neukan; Eneko Sagardoy ez nuen ezagutzen, baina elkarriketatu nuen lehena izan zen eta berehala konbentzitu ninduen, eta sekulako lana egin du. Orduan, kasu honetan, aktoreak filmaren akotazioan guztiz bat datoz, eta ez txikiak direlako, baizik eta hemen egiten den moduan lan egiten dutelako; denok ulertzen dugu elkar, filosofia berbera daukagulako. Jende borrokalaria da. Hemen zinema egitea ez da erraza, eta zurekin arraun egiten duen jendea behar duzu.

Filmaketa lana, hortaz, gogorra izan da?

Film guztiak izaten dira gogorrrak. Lagunekin hitz eginda eta film labur asko eginda, badakit film batean bai produkzioa bai filmaketa oso gogorrrak direla; berdin da zer garaitako filma den, baina, gure kasuan, gainera, historikoa da, generoa berezia da, film bera oso fisikoa da... Horrek guztiak zailtasun handiagoa ematen dio, gogorrago egiten du: borrokak daude, atmosfera landua, munstro protetikoa, efektu bereziak, sua, lokatza, hotza... Gainera, neguan gertatzen da istorioa, eta, jakina, negu gorrian filmatu genuen, abenduan eta urtarrilean; sekulako hotza egiten zuen eta kanpoan grabatu genuen, gauez, haurrekin... Nik badakit ekipoarentzat oso gogorra izan dela, baina, bestalde, jendea oso gustura ari zen lanean, oso giro polita zegoen. Nik uste dut gogortasun hori ere inprimatu egiten dela filmean, bisualki dena da egiazkoa. Ehundura gogorragoa ematen dio, pixka bat barrokizatu egiten du filma. Eta hori denok batera arraun egin izanari esker izan da posible.

Film hau egiteko prozesuan, inoiz pentsatu al duzu non arraio sartu ote zaren?

Bai, proiektu guztian zehar. Saiatzen zara hori ez pentsatzen, beldurrak gainditzen bazaitu, ez baituzu inoiz egiten. Planteatzen dizutenean, balantza batean jartzen dituzu beldurra eta gogoia, eta zerk irabazten du? Nire kasuan, gogoak.

Proiektua oso modu zorrotz eta zehatzean aurkeztu omen zenuen, besteak beste, ilustrazio bidez.

Bai, *storyboard* guztia eginda [filma binetatan ilustratuta] aurkeztu nuen, oso ondo azal-

duta, aurrerakin faltsu bat ere egin genuen filmaren tonua azaltzeko, proiektua saltzeko; munstroen diseinuak eginda genituen, oso fisikoa zen dena, oso erakusgarria. Horrek niri konfiantza ematen zidan, alde zureko lan hori eginda posible zela ikusten bainuen.

Nik uste dut filmaketa guztietan badela puntu bat zer gertatuko den ez dakizuna. Arazo pila batekin topo egiten duzu, film bat arazo handi bat baita finean, eta arazo horiei konponbideak bilatzen joan behar duzu. Euria hasten bada, lokalizazioa aldatu behar duzu; zerbaitek funtzionatzen ez badu eta sekuentzia bat grabatzeko behar baduzu, sekuentzia moldatu egin behar duzu, eta agian sekuentzia horretan 18 plano daukazu eta lau planotan kontatu beharra daukazu... Unean-unean erreakzionatu behar duzu, erne egon behar duzu; etengabe arazoak konpondu behar dituzun dinamika batean sartzen zara, baina diskurtsoari eta estetikari eutsiz. Azken batean, zinema arte bat da, eta sormenezko ikuspuntu hori eutsi behar diozu.

Eta ondoren?

Filmaketaren ostean muntaketa dator, baita ateak itxita egiten diren beste prozesu batzuk ere, ordenagailuekin, efektu bereziekin... Azken beldur handia estreinaldia da, jendeak nola hartuko duen, zu zeu zeure filmaren perspektiba pixka bat galduta zaude eta. Orain dela zazpi urte hasitako proiektua nola amaitu den ikusi beharra daukat, zer gelditzen den hazi hartatik, noraino eraldatu den, eraldatu egiten baita. Baina, tira, konfiantza izan behar duzu.

Edonola ere, Sitgeseko Nazioarteko Jaialditik eta Donos-

PAUL URKIJO

ZINEMA ZUZENDARIA

Gasteizko zuzendari gazteak

«Errementari» bere lehen film luzea

estreinatuko du martxoaren 2an, gai

unibertsal baten gaineko oso «etxeko

produktua», euskal ipuin batean oinarritua

eta ikusmin handia sortu duena.

Xabier Izaga Gonzalez

**tiako Fantasiatzko eta Beldur-
rezko Astetik igaro zara,
arrakastatsu igaro ere. Ho-
rrek lasaitua emango zizun.**

Bai, polita izan zen. Kritika es-
pezializatuak gauza politak
esan zituen. Eta, bestalde, zine-
metako blogak, Interneteko
jendea, kontsumitzaile oso adi-
tuak baina industrian sartuta
ez daudenak ere badaude, eta
horien kasuan ere oso gauza
politik irakurri ditugu. Sitge-
sen, nazioarte mailan, eta gero
Donostian. Produktu oso lokala
da, euskarazko ipuin bat oina-
rri duena, baina izaera oso na-
zioartekoa eta entretenigarria
izan beharko lukeena, mundu
osoko jendeak kontsumitu de-
zakeena. Donostian ondo har-
tuko ote zuten beldur nintzen,
eta, egia esan, hemengo jende-
ak oso begi onez hartu du.

**Gai unibertsala izanda ere,
garai batean txokokeria gisa
hartua izateko arriskua izan-
go zuela uste al duzu?**

Bai, baina dagoeneko zineman
mota guztietako filmak ikusi
ditugu, fantasiatzkoak, zientzia
fikziozkoak, edozein garaitako-
ak eta edozein lekutan gerta-
tzen direnak, eta pertsonaiei
gertatzen zaizkienak normale-
an gauza unibertsalak izaten
dira. Badaude egitura narratibo
batzuk errepikatu egiten dire-
nak, eta guk geure prismatik
kontatzen ditugu. Azken fine-
an, gizakion drama berdina da:
jaio egiten gara, bizi, ugaltu, hil
egiten gara, eta nik uste dut
historiako fikziozko istorio
guztiak horren eboluzioa dire-
la. Denok izan dezakegu enpa-
tia edozein istoriorekin.

Ni 80ko hamarkadan jaioa
naiz eta genero fantastikoa
kontsumitu dut txikitatik,
amerikarra eta europarra, lite-
raturan, komikian, zineman;
baina, bestalde, nire herentzia



Juanan RUIZ | ARGAZKI PRESS

euskal mitologia izan da, eus-
kal folkloreko ipuinak eta abar,
eta horixe da nik kontatu nahi
dudana. Baina istorio horiek
nazioarteko kutsua daukate.
Patxi Errementariaren ipuina,
esate baterako, Europako ipuin
mota baten bilduma bateko
parte da; beraz, nazioarteko is-
torioa da, tokiko kutsuarekin.
Gainera, deabrua nazioarteko
ikonoa da, edonon funtziona-
tzeko aukera handia duena

**Alex de la Iglesiarekin lan
egin zenuen telebistarako.**

Harekin bideo teknikari mo-
duan ibili nintzen, “Plutón Ver-

benero” telesaillean. Han ezagu-
tu nuen. Ondoren ez genuen
harreman handirik izan, baina
“Errementari” filmatzen haste-
ra gindoazenean, nirekin harre-
manetan jarri zen. Ordurako
bageuekan filma amaitzeko
finantzazioa, baina bera sartu
zenean banatzaile on bat lor-
tzeke eta lasaiago lan egiteko
modua izan genuen.

**Soinu banda Pascal Gaignek
egin du.**

Filmaren musika zenbait kon-
positoreren eskuetatik pasatu
zen, eta, azkenean, Pascal Gai-
nek hilabete eta erdian egin

zuen. Oso lan sutsua. Lehenik,
Sitgesera joateko, eta, gero, Bra-
tislavan orkestratu da.

**Euskal zinemak momentu
gozoa bizi al du?**

Bai, nik uste dut baietz, eta gaur
egun gauden testuinguru his-
torikoaren ondorio dela, non-
dik igaro garen, non gauden
kontuan izanda. Orain askata-
sun gehiago lortu dugu, jende-
ak ez du euskarazko film bat
egiteko beldurrik, eta nazioar-
tean ere jendeak, Internet bi-
dez-eta, munduan kolore pila
bat dagoela ikusten du. Globali-
zazioaren alderdi ona da edo-


«Orain askatasun
gehiago lortu dugu,
jendeak ez du
euskarazko film bat
egiteko beldurrik,
eta nazioartean ere
jendeak, Internet
bidez-eta, munduan
kolore pila bat
dagoela ikusten du»



zein kultura ezagut dezakezula.
Normaltzat hartzen dira kultu-
ra horiek, eta zurea partekatzea
errazagoa da. Hartara, ez zaude
merkatuak inposatutako kon-
sumo lengoia baten menpe.
Gero, badaude merkatu batzuk
non filma beti bikoiztu egiten
den. Espainian dagoen kultura,
esate baterako, atzerriko film
guztiak bikoiztea da, eta horre-
kin ere jokatu behar duzu.

**Amaitzeko, beste ezer esan
nahi zenuke?**

Bai, ekipoari esker eraiki dugu-
la filma. Talde lana izan da, ak-
toreetatik teknikari guztietara.



Unai
ITURRIAGA

iRRITZIA:

7haizetara^{BIDAIA ALDIZKARIA}

DATORREN OSTIRALEAN ZURE KIOSKOAN SALGAI



SOZIEATE UHARTEAK

Polinesia frantsesetik nabigatuz

Bere izena entzute hutsak munduko paradisu bat iradokitzen du. Gurutzaontzi batean deskubrituko ditugu Sozietate uharteak, Paul Gauguin margolari handiaren lorratzari segika.

Eta gainera: Norvegiako Tromsø hirian aurora borealak ehizatuko ditugu • Hernio: negu gorri, elur zuri • Atitlan, sinkretismoak argitzen dituen aintzira • Eskoziako Highlands basatia

HARPIDETU • 11 ALE 15€ URTEAN
WWW.ZAZPIHAIZETARA.COM

1,5€
7haizetara^{BIDAIA ALDIZKARIA}

ZURE BIDAIA ALDIZKARIA
EUSKARA HUTSEAN

Bakarne

Maidar Iantzi
Goienetxe

Bakarne Uriarte Aurrekoetxea naiz. Sondikan bizi naiz, atez ate gurasoekin. Biek dute mendekotasuna, oso altua, eta justu orain deitu digute esateko egoitzan lekua daukatela». Lantokitik lantokira, bulego itxi banaren intimitate eta lasaitasunean izan dugun solasaldi goxoa hunkituta eman dut. *Spoiler*-a eginez kontatuko dizuet Martxoaren 8rako erreportaje bat prestatzen ari garela, zaintza erdigunean jarrita. Jasotako testigantzetako bat da egoera gogorra bizitzaren ari bada ere alaitasuna eta indarra

transmititzen dituen emakume honena. Gurasoekin txandaka egoten diren Bakarne eta bi anai-arrebek haienganako duten maitasunak animatu nau. «Eredu izan dira pentsatzen duguna botatzeko nahiz eta jendeari gustatu ez. Zoragarriak izan dira beti eta berdin berdinean jarraitzen dute». Benetan nekatuta daudela aitortu dit, gauak aita-amekin pasa eta biharamunean lanera joan behar dutelako, eta horrela egun batean eta bertzean eta bertzean. «Okerrena psikologikoa da». Balio hagitz tiki ematen zaio zaintzeari. Lan ordaine-

zina egiten duen Barakaldoko Argitan Emakumeentzako Aholku Etxeak bere balantzean nabarmentzen du hori: jasotzen dituzten lan kontsulten %90 etxeko langileenak dira, horietako aunitz etorkinak, zaintzen duten pertsonarekin bizi direnak eta askotariko diskriminazioak sufritzen dituztenak. Elkarrizketatu dugun etxeko langileak nahi bai, baina ezingo du grebarik egin; Bakarnek, «momentu honetan ez nago munduan», onartu digu. Ahal dugunok, ahal dugun moduan, goazen grebara, Bakarne bakar eta guztiengatik ere bai. •

Ekai, maite zaitugu

Xabier Mikel
Errekondo

Urteak borrokan eman ondoren bere buruaz beste egin du Ekaik, 16 urteko nerabe ondarrutarrak. Gertakari latza benetan. Tripetan kendu ezinezko minbera larria sor beharko liguke guztioi. Baina nago hirugarren pertsonan sentitu dugula ezbeharra, arazoa soilik berea bailitzan eta pittin bat akaso besteena. Borrokan besteak beste errolda aldatzeko, hormona tratamendua jasotzeko edo formakuntza integrala emateko ikaskideei, gurasoei eta irakasleei hasieratik ongi hartu zuten ikastetxean. Nola

egin aurre halako presio eta frustrazioei? Nola 16 urterekin? Chrysallis eta Save the Children erakundeek eskatutako lege baten babesa beharrezkoa da, alabaina, ez nahikoa. Ekaik argi zuen gakoa jendartearen begiak irekitzean dagoela, prejuizioak gainditzean eta mentalitateen iraultzan. Desgaitasunaren, aniztasunaren, parekidetasunaren eta ezberdintasunaren arloan lanean diharduten elkarteek *lobby* lan bateratua egin eta botere publiko zein alderdi politikoak mugiarazi

behar dituzte, behingoz gizarte inklusiboa eraikitzeari ekin diezaioten, diezaiogun. Mundu bat lan daukagu aurretik, alta gaur bertatik behar ditugu eskubide eta aukera berdintasuna bermatu, eta, hain zuzen horregatik, guztia lortu zain geratu barik has gaitezen tiraka mutur batetik. Galeanok esan bezala, jende txiki askok toki txikietan gauza txikiak egiten, mundua alda dezake. Mina eta sufrimendua indar bilaka dezagun mundu hau aldatzeko, xingola beltza kolore anitz biziz blaitzeko. •



Athleticeko bigarren taldera 2005ean heldu zen Flaviano eta hurrengo denboraldian egin zuen debuta lehen taldearekin. Juanan RUIZ | ARGAZKI PRESS

infraganti JOANA FLAVIANO

Egonkortasuna bilatu nahi izan du Joana Flavianok Athletic utzi eta etorkizun profesionalean pentsaturik. Arkauteko Akademia eta eliteko futbola ez ziren bateragarriak eta azaroaren 25ean Euskal Selektzioaren elastikoarekin agurtu zen futbolari gisa. Lezamako zelaia, aldiz, Sevillaren aurka zapaldu zuen azkenengoz, azkena izango zela jakin gabe.

Nik utzi dut, nik nahi izan dudalak. Bakoi-tzaren araberakoa da, bakoitzak bere lehentasunak ditu. Batzuek nahiago dute futbolean 38 urtera arte jokatu eta gero lana egin. Nik ez, nik nire bizitza egonkortu nahi

nuen». Joana Flaviano (1990, Lezama) garbi mintzo da futbolari etapa bukatutzat eman ostean. Azaro amaieran hartu zuen erabakia, eta, hiru hilabete pasatu badira ere, nostalgia puntu batekin hitz egiten du. «Nik uste dut nahiko talde polita daukagula, beno, daukagula; ez dakit nola esan». Ohartu da bera ere kosta egin zaiola

Athleticekin distantzia jartzea, eta barrea eragin du Gasteizko Salburua parkean. Arkauteko Akademian dago, formakuntza fasean, oposizioak aprobatu ostean. Athletic eta formakuntza bateraezinak zirela-eta, futbolari agur esan behar izan zion denboraldi erdira iritsi aurretik. 2005ean iritsi zen klub zuri-gorrira eta 12 urte

geroago irten da. Tartean Italian urtebeteko esperientzia bizitzeko parada ere izan zuen: «Nik beti pentsatu dut ez nintzela futbolaz biziko. Orduan, betidanik izan dut bu-ruan futbolak esperientzia berriren bat bizitzeko aukera emanez gero, aprobetxatzea. Berdin zitzaidan Txina, Japonia, Ingalaterra edo Italia izan. Eta guztia presaka prestatu nuen, asko pentsatu gabe».

Torres Calcio taldearekin aritu zen denboraldi batez, Italiako Serie A ligan, 2014-2015 denboraldian. Ligan bigarren postuan geratzetik zetorren taldea, eta aurrez zazpi aldiz irabazia zuen txapelketa. Flavianoaren urtean ligan zortzigarren geratu ziren eta ekonomikoki arazoak izan zituztela ere aitortu du –«fama eskasa merezita dute»–; pentsa, 2015ean gorengo mailatik kanporatu zuten taldea finantzia-zio arauak ez betetzeagatik.

Baina baikorra da Flaviano eta oso gustura aritu zela nabarmendu nahi izan du. «Badakizu, zer esan Sardiniari buruz... Luxu bat da». Athleticeko ateak irekita joan zen Italiara eta etxera itzuli eta urte beterra Liga bereganatu zuen «nire bizitzako» taldearekin. Bere bigarrena eta taldearen bosgarrena. Lesioak tarteko (bi oinetako tendoiak hautsi zituen denbora gutxiren buruan), iaz arte ez zuen jarraitutasunik eskuratu, «hala ere, bigarren Liga hura neureago sentitzen dut 2006-2007koa baino. Hor umeagoa nintzen, noizean behin jokatzeko nuen, eta ez nintzen kontziente. 2017an beste erantzukizun batzuk nituen taldean, eta nahiz eta tendoiak hautsi eduki nuen eta min hartuta egon denboraldiaren zati handi batean, izugarria izan zen».

Lesiotik guztiz errekupe-
tuta, eta Iraia Iturregi, Eli Iba-
rra eta Irune Murua bezalako
jokalarien erretiroarekin lotu-
rik, taldeko beteranoen artean
zen sasoi honetan Flaviano.
Hori bai, inoiz ez dela kexatu
adierazi du, beti minutu asko
izan dituelako, «eta eskertzen
da, batez ere lesio garrantzitsu
batetik errekupe-
ratzen zarene-
an». Joseba Agirrerren plante-
amenduan ezinbesteko pieza
izan zen sasoi honetako aurre-
neko hamar neurketetan; be-
deratzitan hasieratik aritu zen.
Lezaman Sevillaren aurka 2-1
irabazitako partida izan zen
etxean jokaturako azkena, be-
rak jakin gabe. Espanyolen ze-
laian jantzitako elastiko zuri-
gorria ez zuela berriro soinean
jarriko ere ez zekien, ez futbo-
lean aritzeko, behintzat.

EUSKAL SELEKZIOA

«Euskal Selekzioaren neurke-
tan banekien nire agurreko
norgehiagoka zela, baina ingu-
ruko inork ez zekien. Oso go-
gorra izan zen, burua ez neu-
kan nire lekuan. Banekien
futbol botak berriro jantziko
ez nituela eta urduritasuna
areagotu zitzaidan, baina ikus-
leek ez zekiten, taldekideek ez-
ta... Pena apur batekin bizi
izan nuen, guztia barruan
mantentzea oso lan nekeza
izan zelako. Eta hobe zen ezer
ez esatea, %98an zegoelako
guztia». Lehen aldiz jantzi
zuen selekzioaren elastikoa,
«aurrekoetan lesioek deialdi-
tik at utzi ninduten-eta». Bada,
hamabi urteko ibilaldia Txe-
kiar Errepublikaren aurka Ipu-
ruan eskuratutako garaipena-
rekin itxi zuen.

Azaroaren 25ean, beraz,
behin betiko utzi zuen goi-
mailako futbola. «Hasieran
horri buruz hitz egiten nuen
bakoitzean hunkitu egiten



Gasteizen egiten du egunerokoa lezamarrak. Juanan RUIZ | ARGAZKI PRESS

nintzen», azaldu du. «Ez nuen
pentsatzen hain txarto pasako
nuenik. Hamabi urtean zehar
egunero entrenatzen jardun
naiz, astebururo jokatzeko, bi-
daiatzeko. Egunero Athleticen.
Errutina baino, nire bizitza
izan da».

Kostatu zaio eguneroko be-
rrira moldatzea, baina goza-
tzen ari da. «Lehen ezinezkoak
zitzaizkidan planak egin ditza-
ket, esaterako. Eta nahiz eta ez
naizen berandu jaikitzea, la-
runbatean esnatu eta entrena-
mendurik ez duzula jakitea...». Ezin
dio barreari eutsi, nahiz
eta argitzen duen beste hamai-
ka kirol praktikatzeko hasia de-
la: «Kirola beti egongo da nire
bizitzan [Jarduera Fisikoaren

eta Kirolaren Zientzietan li-
zentziatua da]. Futbolarekin
erreprometuta bezala egon
naiz, lesionatzeko arriskuaren-
gatik. Nahiz eta orain ere kon-
tu handiz aritu behar dudana,
formakuntza medio, trail las-
terketetan, adibidez, parte har-
tu dezaket».

MASTER CUP PILOTA TXAPELKETA

Beste kirolekin aritzearen bai-
tan dago Master Cup pilota
txapelketan parte hartzearen
arrazoia. «Ezagun bat aritzen
da antolatzen, eta futbola utzi
nuenean segituan etorri zi-
tzaidan animatzera. Azkenean
izena eman nuen erdi konpro-
misoz eta txikitako oroitzape-
nak gogoratzea polita izan

**Lagun batek eskatuta eta erdi konpromisoz
Master Cup pilota txapelketan izena eman
zuen. Trial lasterketak ere gustuko ditu eta
kirolarekin estuki lotuta jarraitzen du**

**Flavianok berak bakarrik zekien Euskal
Selekzioarekin jokaturako neurketa azkena
izango zela: «Burua ez neukan bere tokian,
barruan guztia gordetzea lan nekeza izan zen»**

da». Izan ere, galdu egin ditu
estreinako bi neurketak, eta,
beraz, hasi bezain pronto
amaitu da frontoietako ibilbi-
dea. «Ez daukat denbora eta
gogo gehiegi zerbait serio mo-
duan hartzeko. Txikitari bai
aritzen nintzen, eta heldu zen
une bat non futbola edo esku
pilota aukeratu beharra izan
nuen». Jakina da, jada, zer au-
keratu zuen lezamarrak.

Txapelketan parte hartuz,
emakumezkoen kirol proiektu
bat babestu du. Aurrerapauso
oso txikiak eta geldoak ema-
ten direla uste du, eta futbola-
ren kasua beste esparruetara
ere zabaltzeko behar izateke-
ela. «Ez dira pausu itzelak, bai-
na ni Athleticera heldu nintze-
nean ez geneukan soldatarik.
Irabazten genuen partida ba-
koitzeko ordainsariak geneuz-
kan, baita kanpoan berdinduz
gero ere. Orain zerbait behin-
tzat normalizatu da egoera,
kontratu eta soldatekin».

Oraindik, ordea, ez da nahi-
koa futbola ofizio bilakatzeko.
Eta urrutia ikusten du helburu
hori. «Oso zaila da klubek
hainbeste diru ordaintzea guk
gure bizitza guztian lanik ez
egiteko moduan. Ezinezkoa
da», onartu du akademiara
itxuli aurretik, formakuntza fi-
sikoarekin jarraitzeko.

Nostalgia puntu batekin jo-
an da. Athletic eta Atletico Ma-
drilen arteko lehian (2-2) talde-
kideek eta zaleek idatzitako
mezuak irakurtzean, jokatzeko
gogo berpiztu zitzaizola ere
onartu digu. •

Ane Urkiri Ansola



Garazi Goia - @GaraziGoia
Idazlea

Grisa, beltza eta arteak

gande arratsaldea. Otsaileko egun grisa, Londresko gristasuna are anplifikatuagoa dago gaur. Negu luzea daramagu, eta lehenengoz eguraldiagatik kexatzen nabil. Eguraldia gai zentrala den konbertsazioak ugariak dira britainiarren artean. Harritu egiten ninduen hasieran, baina, hemen duen aldakortasuna ikusita, hamaika elkarrizketarako adina gai ematen du.

Kensington auzoan, Hyde Parken albo batean, Royal Albert Hall kontzertu-areto ikonikoa, berezko presentzia txundigarriarekin, festa giroan dago gaur. Victoria erreginaren senarrak zientzia eta arteak bultzatzeko nahiarekin inauguratu zuen eraikina XIX. mendearen amaieran. Helburua edo ametsa lortu dituela esan behar, ikusgarria eraikina eta bertako eskaintza zabala.

Alfonbra gorria alde batean, *glamour*-ez bete dira bere inguruak. Zinema eta Telebistako Arteen Britainiar Akademiak antolatzen dituen BAFTA sarien ekitaldia ospatzen da gaur. Alfonbraren gorritasunean, marea beltz bat bezala, aurpegi ezagunak gerturatuz doaz, denak arropa beltzak soinean. Denak beltzez daude. Denak, salbuespen bakar batekin. Frances McDormand aktore estatubatuarra. Martin McDonagh zuzendariaren “Three Billboards Outside Ebbing, Missouri” filmeko protagonista. Emakumezko aktore onenaren sariaren irabazle izendatu dute. Bere eskerrak emateko diskurtsoa «*sorry, I am not compliant*» (barkatu, nik ez ditut legeak betetzen) esanez hasi du; filmeko gai nagusietako bat sexu erasoak eta diskriminazioa dira, eta horien kontra borroka egiten du. Horregatik erreferentzia.

Oscar sarietarako aste gutxiren faltan, industria inoiz baino bateratuago dagoela garbi dago (modu kontzeptual batean behintzat); buruan galdera bat darabilkit, ordea: sinbolismotik at, ekintzen beneta-

ko eraginkortasuna ikusteko datuak non daude? Denbora gehiago itxaron beharko dugu akaso.

Asteazken iluntzea. Oraindik gristasunak jarraitzen du. Eta, temperatura, zero azpitik. Londresko beste eraikin entzutetsu batera bidean noa. Oraingoan Royal Festival Hall-era, Thamesi ibaiaren alboan, Southbank deitzen den aldean. Zubia zeharkatzen dudana heinean, bi alboetan dudana paisaia lasaigarria iruditu izan zait beti. Trenbidea, ibaia, zarata, handitasuna, bista izugarria, jendearen joan-etorria. Juanjo Mena gasteiztarra da protagonista. Besteak beste, BBCren orkestra zuzentzen du Menak, nazioartean prestigio handikoa. Gaur Londresko Orkestra Filarmonikoa-ekin aritu da. Beste hiru piezaren artean, Stravinskiren “The Rite of Spring” jo dute. Stravinskiri buruz oso gutxi dakit. Adituek esan didate pieza honek musika modernoaren azken ehun urteetan eragin izugarria izan duela. Nire ignorantzia sakonenean, intentsitatea eta pasioa sentitzeko gai izan naizelako, pozik etorri naiz etxera.

Kontzertura sartu aurretik, Southbank kultura zentroan datorren astean egongo diren ekitaldi batzuen kartela ikusi dut. Emakumeak bozkatzeko eskubidea lortu zueneko 100. urteurrena ospatzen da aurten Erresuma Batuan, eta horren bueltan –eta Hollywoodeko #MeToo mugimendu sozialaren il-dotik– emakumezko artistak, idazleak, aktibistak eta beste hainbat bilduko dira. Agendan apuntatu dut.


Aukerak edukitzea benetan estimatzen dudana gauza da, nahiz eta gero askotan nire erabakiz aukera horiek ez baliatu. Londresek eskaintzen duen gauza onenetako bat dela pentsatu dut askotan. Nahi badut, nire eskura dagoela jakitea. Askatasun zantzua ematen dio. Ez nagoela mugatuta sentitzeak balio handia dauka. •



BAFTA sarietan arropa beltza nagusitu zen. Daniel LEAL-OLIVAS | AFP

BEHATXUL[]TIK

Juantxo EGAÑA



MUNOA FUNTSA

AMARAKO PADURAK, DONOSTIAKO ZABALGUNEA BAINO LEHEN

1863an Donostiako harresiko lehen harria kendu zuten, hura eraisten hasteko. Gipuzkoako hiriburuak 14.500 biztanle zituen orduan. Urte hartan Antonio Cortazar arkitektoak Donostiako hegoaldeko zabalgunea garatzeko lehiaketa publikoa irabazi zuen. Zabalgunea hura gaur egun Bulebar izenez ezaguna den zumardia eraikiz hasi zen. 1864an, tren Donostiara iristearekin batera, Amara Berrin burdinazko zubia eraiki zuten. Mende bukaera arte, hiriak zabaltzen jarraitu zuen, alde batetik Amara aldera eta bestetik Gros auzorantz. Zabalguneak Amarako paduretan topatu zituen zailtasunak zirela-eta, Donostiako Udalak Urumea ibaiaren ibilgua aldatzea erabaki zuen. Desbideraketa hura 1926an bukatu zuen. Artikulua ilustratzen duen argazkia, XIX. mendearen azken herenean egina, egile ezezagunekoa da eta jatorrizko irudian seinalatzen diren datuak besterik ez daude: "Amarako paduretako arrantzaleak". Erabiltzen zuten metodoa bitxia da; izan ere, haien tresnen artean laiaz eutsitako zurezko bi listoi ageri dira.

ESTREINALDIA MARTXOAK 2

ÁLEX DE LA IGLESIAK

AURKEZTEN DU

"Una de las propuestas más divertidas y tiernamente demoníacas de Sitges"
LA VANGUARDIA

"Una delicia inaudita"
CINEMANÍA
"Un cuento con el que disfrutar"
FOTOGRAMAS



Ikusleen Saria
Film Luze Onenari
Fantasiako eta Beldurrezko
Zinemaren Astea

ERREMENTARI

PAUL URKIJO ALIJOREN FILM BAT

KANDIDO URANGA ENEKO SAGARDOY UMA BRACAGLIA RAMÓN AGIRRE JOSEAN BENGOTXEA GOTZON SÁNCHEZ JOSÉ RAMÓN ARGOITIA
GORKA AGUINAGALDE IÑIGO DE LA IGLESIA AITOR URTZELAI MAITE BASTOS ITZIAR ITUÑO ZIGOR BILBAO JON ANDER ALONSO

KINOSKOPIK FILM PRODUKTION POKEEPSIE FILMS NADIE ES PERFECTO GARIZA FILMS THE PROJECT IKUSGARRI FILMS ETA ERREMENTARI FILMA AILEREN EKOIZPEN BAT

PAUL URKIJO ALIJO LUIS DE OZA CAROLINA BANG GORKA GÓMEZ KIKO MARTINEZ MIGUEL ÁNGEL JIMÉNEZ ORTIZ ACOSTA PAUL URKIJO ALIJO GORKA GÓMEZ ANDREU, A.E.C.

IZASKUN URKIJO NEREA TORRIJOS BEATRIZ LÓPEZ PEDRO RODRÍGUEZ FX DRAMA-FX PABLO BUENO MUNTATIA PAUL URKIJO ALIJO VFX USER-T38
JOSU GONZÁLEZ PASCAL GAIGNE JAVIER ARSUAGA GIDOIA PAUL URKIJO ALIJO ASIER GUERRICACHEVARRÍA KOLABORAZIOAREKIN PAUL URKIJO ALIJO



errementari.com f/errementari t/ErrementariFilm YouTube Errementari Film @errementari

8 0 2 2 4

